

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a / 488. zenbakia



Gorlako Igoera
San Jose egunean

ESKUBALOIA: SENIORRAK GIPUZKOAKO TXAPELDUN/11 • GAZTETXEA: HARD-ONS TALDEA ZAPATUAN/12




Martxoaren
19an
Aitarenekin
Eguna
Zatoz
opariaren
bila!
%10eko
deskontua!

%10

udaberriko modan
martxoan bakarrik!



Bidekurutzeta 18 • Tel. 943 76 72 67 • Faxe. 943 76 29 03



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak

**Zuen
zerbitzura!**

San Juan, 1 A
BERGARA
Tel./ Faxe:
943 76 54 91



ATREBENTZIAEZPADA/ Ze zara, sokamuturra errekeratziaren aldekoa ala zenzenketen aldekoa?



ASUNCION FERNÁNDEZ
44 urte

Berdin dost bata edo bestia egitten dan herriko jaixetan. Neuri ez jat gustatzen ez sokamuturra ezta zenzenketia be. Ni ez naiz sartuko bata egin eta bestia kendu bihar dan.



PILAR GONZÁLEZ
63 urte

Tradiziño haundiko gauzia da sokamuturra, eta jarraitzia nahiko neuke; berreskuratziaren aldekoa naiz. Zenzenketak ez jat gustatzen, baiña ez naiz sartuko kendu bihar dan edo ez.



MANUEL RODRÍGUEZ
49 urte

Ez jata bata ez bestia gustatzen. Sokamuturra errekeratzia ondo pentsatzen jat, eta zenzenketak kentzia ez litzatake ondo pentsatzen, baiña gehixegi be ez litzatake inportauko.



PILI URRUTIA
39 urte

Berdin dost bata edo bestia. Ez jat gustatzen zenzenak orokorrian. Sokamuturra ez neban ikusten eta zenzenketetara be ez naiz juaten. Ez jat inporta bata edo bestia dagon.



FRANCISCO SÁNCHEZ
30 urte

Nahixago dot sokamuturra, zenzenketiak ez jat gustatzen. Sokamuturrian ibilli izan naiz, eta gustauko litzatake errekeratzia. Baiña zenzenketak kentzia be ez jat pentsatzen.



JOSE CARLOS SAROBE
35 urte

Ez jat gai horri garrantziarik emoten, ez jatelako zenzenekin zerikusixa daukan ezer gustatzen. Nik neuk, nahixago neuke ez egotia ez sokamuturra ezta zenzenketak be.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK IGERILEKUETAKO DUTXAK Igerilekuetako dutxez kexatu zaigu irakurle bat; emakumezkoen dutxez. Batetik, zaharkituek eta itxura nahiko eskasa dutela aipatu du. Bestetik, txorrotetik oso ur gutxi erortzen dela eta botoiari etengabe sakatu behar ei zaio ura erortzeko. Harentzat, kirol gune berria egin arte itxoitea ez da irtenbidea. Orain pixka bat txukuntzea beharrezkoa dela uste du./M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

Xiberoa 2010 egitasmoa

Zuberoari laguntzeko diru-bilketa kanpaina abian jartzeko, lantaldea osatu nahi du Batasunak.

KIROLAK / 10

Gorlako igoera martitzenean

Gorlako Igoerak ibilbide berria izango du aurten. 110 bat txirrindularik hartuko dute parte proban.

KULTURA / 12

Literatura lehiaketa

Udalak Koldo Eleizalde lehiaketa jarri du martxan. Aurkezteko azken eguna apirilaren 10a da.

ASTEKODATUA

400

SINADURA INGURU IGERILEKU OLINPIKOAREN ALDE

Igeri Elkartek 50 metroko igerilekua ez kentzeko eskatzeko, sinadura batzea hasi zuen zapatuan. Laurehun sinadura inguru jaso zituzten. Aste Santu arte sinadurak batzen jarraituko dute.

BESTEKEKESANA

“

Inoiz ez naiz desprestigiatura sentitu. Hori pentsatu izan banu, orain ez

nintzateke hemen egongo. Toshack-en ustez, klubean ez zen prestatzaile fisiko bakarria egon behar; bi baizik, hainbat arlotan lanean. Agian, orain, lehen baino gehiago nago erakusleihoan, nahiz eta ez dudan oso gustuko.

Orain, eguneroko jardunean pentsatu behar da. Bederatzi lan-aste ditugu aurretik, ia hirurogei egun, eta egunaren hogeita lau orduak aprobetxatzen saiatu behar jokalariek lanaren mamia eurengana ahal dezaten. Jakinda, hori bai, garai lehiakor bete-betean gaudela.

JULEN MASACH
Diario Vasco/02-03-13

BERAIEKDIÑO/ Elena Laka



Erregu bat

Debagoieneko bailara honetan multizine bat behar dugu. Ez dute, beharbada, berdin pentsatuko oraingo zine aretoetako jabeek, badakit horrelako enpresa batek haien hondamena ekar dezakeela. Baina ikusleok, herritarrok, pelikulak ikusteko oinarrizko eskubidea daukagu neguan izoztu gabe, bizkar hezurra bihurritu gabe eta eskaintza minimo bat izanda.

Badakit areto diferenteak dituen multi batek ez duela nahitaz zine eskaintza ugaritzen; anaia handi amerikarrak saldu nahi dizkigun pelikula guztiak irentsi behar direla bertan; zabor ugaritan igeri egin beharra dagoela sarritan pelikula on samar bat ikusteko; badakit, zinea gero eta gehiago kontsumo produktu bat dela, berarekin batera erostarazi nahi dizkiguten palomitak bezala. Ah, baina areto berri horrek, film guztien karteekin, pelikula eta ordua aukeratzeko ahalmena, galtzeko moduko

aulki eroso horrek, eta *takian potian* topatzen duzun pelikula on bat zelako plazerra!

Igerilekuak, kirolguneak, bide gorriak, kultur etxeak egiten dira. Oso ondo, dena da beharrezko herritarrok ondo bizi gaitezten, baina kirol eskubide batzuk aitortzen zaizkigun bezala (eta hori gaur egun ez dago ukatuko duen agintaririk) baditugu beste kultura eskubide batzuk, eta zinea modu onean ikustea da bat. Bailara honetan gauza asko produzitzen da, aberastasuna zabaldu egin da, teknolo-

gia puntakoa da, guztiak oso langileak gara. Baina gero gure aisialdian mendira joatea ez den beste ezer ere behar dugu.

Udala, Mankomunitatea, Laurent, Eroski, dagokionari: ez da negozioa zinea? Egiten diharduten autopista, orain arte legez, Gasteizera filmak ikustera joateko erabili beharko dugu? Ase gaitzazue palomitaz, saldu hanburgesak, dena onartuko dugu filmen truke, baina egiguzue, arren, multizine bat.

“Kirol eskubide batzuk aitortzen zaizkigun bezala, kultura eskubideak ere baditugu: zinea modu onean ikustea da bat”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA

Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA

Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA

55-50/91

ISSN

1130-6599

TIRADA

5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 15
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

ZAPATUA, 16
PUY, Barrenkale 25 943 76 16 87

DOMEKA, 17
PUY, Barrenkale 25 943 76 16 87

ASTELEHENA, 18
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05

MARTITZENA, 19
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63

EGUAZTENA, 20
MOZOS, San Pedro 4 943 76 12 15

EGUENA, 21
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina
Domekak: 10:30.
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:15.

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Sierbak
Lanegunak: 19:30.

Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:30.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

Elorregi

Domekak: 10:30.
Labegaraieta Domekak: 11:00.
San Lorenzo Zapatuak: 20:00.
Angiozar Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak Lanegunak: 8:00.
Mizpirualde Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.
Antzuola Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga Domekak: 10:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

IMPRECIOKO BAZKIDE OHIEN AFARIA APIRILAREN 20AN
Impreci kooperatibako bazkide ohien afaria apirilaren 20an Zabala jatetxean. Izenematea Zabalan, Mujika jantzi dendan edo Zubietako Arantxa dendan, apirilaren 13ra arte.

1956KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1956ko kintoei aurten 67 urre beteko dituztenek - bazkaria egingo dute martxoaren 24an Zarauzko Aiten Etxe jatetxean, 14:30ean. Aurretik, frantziskotarren elizan hildakoen omenezko meza izango da, 12:30ean. Bazkaria joan nahi duten bergararrek Iñaki Arregiri dei diezaiokete: 943 76 11 73.

1951KO KINTOEN BAZKARIA
Gipuzkoako 1951ko kintoen bazkaria apirilaren 14an Ordiziako Martínez jatetxean, 14:30ean. Aurretik, 12:30ean, hildakoen omenezko meza izango da Jasokunde Amabirjinaren parrokiari. Izenematea Martínez jatetxean, 943 88 06 41 zerbakian.

KARTEL LEHIAKETA
Mendekoste jaietarako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Lanak aurkezteko epea martxoaren 20ra arte zabalik. 943 77 91 58.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Zapatu arratsaldean, igerilekuetara irteera egingo dute, eta domekan, eskulanak, Kartzelan.

TXORIMALO LEHIAKETA
Erramu Zapatuan, martxoaren 22an, txorimalo lehiaketa egingo da. Izenematea, Jardunen. Argibide gehiago, 943 76 08 19 zerbakian.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Senior saskibaloit taldea 3. mailara

Ligako azken partidua Politekniko taldearen aurka galdu arren, Bergara KEko gizonezkoen saskibaloit taldeak 3. mailara igotzea lortu zuen. Denboraldian jokatuak hiru partiduetatik, hiru besterik ez zuten galdu Txiki Oizartabalen mutilek. Ligako txapeldun izan genituen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Erkinddu”

Indarra galdu, eskaxtu.
-Porru landaria ondo etorri zan baiña aspaldixan ziero erkinddu da.
-Peru ziero erkindduta dago.



GORKA ORTEGA

ASTEKO FILMAK

‘EL HIJO DE LA NOVIA’

ZUZENDARIA: JUAN JOSE CAMPANELLA. AKTOREAK: RICARDO DARIN, HECTOR ALTERIO, NORMA ALEANDRO.

HARIA. Oscar sarietarako izendatu duten komedia.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 22:30ean; eta martitzenean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

RICARDO DARIN HÉCTOR ALTERIO NORMA ALEANDRO

46 SEMINCI DE VALLADOLID
ESPIGA DE PLATA - PREMIO DEL PÚBLICO

EL HIJO DE LA NOVIA
DIRIGIDA POR JUAN JOSÉ CAMPANELLA

CON NATALIA VERBEKE COMO NATY Y EDUARDO BLANCO
una producción POL-RA PRODUCCIONES, JEMPSA, PATAGONIK FILM GROUP,
TORRESSEL FILMS con la colaboración de VIA DIGITAL

‘KANDAHAR’

ZUZENDARIA: MOHSEN MAKHMALBAF. AKTOREAK: NOLLUFAR PAZIRA, HASSAN TANTAI, SADOU TEYMOURI.

HARIA. Nafas Kanadan erreferentiatutako afganiar kazetaria da, eta ahizpa txikiaren gutun bat jasoko du: bere buruaz beste egiteko asmoa duela dio gutunean. Nafas Kandaharrera itzuliko da, ahizpari laguntzera... Iaz, Cannesko Zinema Jaialdiko sail ofizialean aurkeztu zuten filma.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Eguenean (hilak 21), 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49

Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

iRUDI
Erloju denda
Bitxitegia

Ibargarai, 2 BERGARA 943 76 51 65

EUSKAL HERRIA/ Ekimenaren berri emateko eta laguntza taldea eratzeko bilera irekia egingo dute hilaren 21ean, 19:00etan Uned-en

Xiberoa 2010 ekimenarekin bat egiteko, taldea eratu nahi dute hainbat lagunek


MONIKA BELASTEGI

Taldea eratzeko arrazoia garbia da: Zuberoako Herri Elkargoak eta hango hainbat eragilek martxan jarritako Xiberoa 2010 garapen ekimenari laguntzea. Eta Zuberoari laguntzeko modua izango da Udalbiltzak antolatutako diru bilketa kanpaina herrian bideratzea.

Zuberoako Herri Elkargoak -hango 35 udalerriek osatzen dute-, herrialdearen etorkizunaz kezkatuta, Xiberoa 2010 garapen egitasmoa bultzatu du, bertako hainbat eragilerik egitasmo hori presta zezala eskatuta. Izan ere, herrialdearen etorkizunarekin kezkatuta dago Herri Elkargoa: azken urteotan nabarmen egin du behera Zuberoako ekonomiak, eta horrekin batera, datozen hamar urteetan 2.000 biztanle inguru galduko dituela aurrez ikusi dute.

Hori horrela, Xiberoa 2010 egitasmoak helburu bikoitza du; hamar urtetan garatu beharreko helburu bikoitza: batetik, 600 lanpostu sortzea eta 2000 pertsona herrialdean finkatu ahal izatea. Horretarako, industrian eta artizanatuan, zerbitzuetan eta nekazaritzan neurri zehatzak proposatu dituzte. Bestetik, jendea probintzian sustraitzeko, lurraldearen erakargarritasuna eta barne kohesioa sendotu beharra ikusi dute, bai zerbitzu eta aisiaren aldetik, baita Zuberoaren identitatea azpimarratzearen aldetik ere. Bi helburu orokor horiek arloz arlo zehazten dituen programa espezifikoa ere prestatu dute.

Horren aurrean, Udalbiltzak ere ekarpena egin nahi izan dio Xiberoa 2010 egitasmoari. Ekar-



Zuberoan lanpostuak sortuz biztanleak bertan errotzeko helburua du garapen planak.

Xiberoa 2010 egitasmoak 600 lanpostu sortzea eta jendea probintzian errotzea du helburu

pena bilketa kanpaina batean gauzatuko da, eta helburua Euskal Herria osoan milioi bat euro (166 milioi pezeta) batzea da; Zuberoara bideratuko den dirua.

Laguntzeko asmoz, diru bilketa kanpaina bati ekin, eta Bergaran 17.500 euro batu nahi dira

BERGARAN 17.500 EURO
Diru bilketa Bergarara ere zabaldu dute, eta bilketa bideratzeko, herritarrei deialdia egin nahi diete Batasuneko kideek.

Kanpainan laguntza eman nahi duenak hilaren 21ean du hitzordua, UNEDen, 19:00etan

Asmoa lan talde bat osatzea da, plataforma ahalik eta irekiena, eta horretarako datorren martxoaren 21ean, eguena, 19:00etan, UNEDen egingo duten

batzarrerako deialdia egin dute; deialdi horretara interesa duten pertsona guztiak daude gonbidatuta.

Zuberotarrei laguntzeko batu nahi dituzten milioi bat euro horietatik, Bergaran 17.500 euro (2.800.000 pezeta) batu nahi dituzte. Ekarpinak banaka zein taldeka egin ahal izango dira, eta gutxieneko kopurua 250 euro (40.000 pezeta) izango da. Bergaran 70 ekarpen lortzeko asmoa dago, eta ordainketa batean edo bi hileroko 5 epetan egin ahal izango dira.

Aurrera doaz Oxirondo plaza berria eraikitze lanak

MONIKA BELASTEGI

Dagoeneko hasi dira Oxirondo plaza eraikitze lanak. Helburua da Santa Marina osteko orubea txukundu eta plazatxo egitea. Lanak amaitutakoan, zapatueta azoka han kokatzeko asmoa dago.

Santa Marina parrokia osteko zabalgunean hasi dira dagoeneko Oxirondo plazatxo eraikitze lanak.

Orain dela bi aste inguru hasi zituzten lanak, eta amaitu ondoren, plazatxo berria egongo da

hantxe. Asmoa da, zorua konpontzeaz gain, eserlekuak, zuhaitz berriak eta iturri bat ere jartzea. Aisialdigune bilakatuko dute plazatxoak, eta gaur egun autoak aparkatzen badira ere, plaza eraikitakoan ezin izango da aparkatu.

Bestalde, aisialdigune izateaz gain, zapatu goizetan Zurradero kalean jartzen duten azokarako gunee berria ere izango da Oxirondo plaza. Gainera, errekaen kontra hogeita lau metro luze izango den aterpe bat jarriko dute eta aterpe horretan hainbat eserleku; zapatu goizetan, dena dela, azokako saltzaileek hantxe jar

ahal izango dituzte euren postuak, nahiz eta plaza guztia erabili ahal izango duten.

SANTA MARINA PARROKIA

Plaza konpontzeaz gain, Santa Marina parrokiari kanpoko aldetik hainbat hobekuntza ere egingo dizkio Bergarako Udalak, bi aldeek hori halaxe hitzartuta: sakristau etxeke erreteila, egingo dute, baita kanpoko hormak berri ere. Bestetik, plaza egiteko zorua altxatu behar dutenez, elizarendako hoditeria sartuko dute, baita eliza eremuko lurrean zorua konpondu ere.



Duela bi aste inguru hasi zituzten Oxirondo plaza berria eraikitze lanak.

MONIKA BELASTEGI

EUSKARA/ Epaitegia eskalduntzeko helburuak hainbat talderen eta 600 banako pasatxoren atxikimendua izan du

Herritarrak kontzientziatzeko kanpaina egingo du Justizia Euskararentzat taldeak

MONIKA BELASTEGI

Justizia administrazioan euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko sortu zuten iaz Jardunek, EHEk eta AEK-k Justizia Euskararentzat taldea. Talde horren urratsen berri eta laster hasiko duen kanpainaren gaineko argibideak eman zituzten prentsaurrekoan.

Justizia Euskararentzat taldeak eman dituen urratsen eta epe laburrean emango dituen urrats berrien berri jaso genuen eguean prentsaurrekoan.

Justizia Euskararentzat taldea EHEk, AEK-k eta Jardunek eratu zuten iaz, eta bere helburua da Justizia administrazioan difugun hizkuntza eskubideak aldarrikatzea, baina baita herritarren kontzientziatzea eta sentiberatasuna piztea ere.

Justizia Euskararentzat taldeko kideek prentsaurrekoan azaldu zuten epaitegian ez direla euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzen. Hori azaltzeko, datu hauek eman zituzten: Bergarako Epai Barrutiak eskualde osoan eginbide judizialak bideratzen ditu, Debagoieneko 62.000 biztanlerenak, hain justu, eta horietatik guztietatik, %63 euskaldunak dira. Bergararren kasuan, 15.000 biztanleetatik, %67 dira euskaldunak. Epaitegian, baina, lau epailetatik, %100 erdalduna da, eta 25 funtzionarioetatik, %68 da erdalduna. Hori horrela, epaitegian euskararen erabilera eta presentzia bigarren mailakoak direla azaldu zuten.

Errealitate horren aurrean, zazpi oinarriren gainean jardun dute lanean; egoera konpontzeko ahaleginean AEK-k, EHEk eta Jardunek adostu dituzten zazpi oinarriren gainean, hain zuten.



AEK-ko, Jardun elkarteko eta EHEko kideak egueko prentsaurrekoan.

ATXIKIMENDU UGARI

Justizia Euskararentzat taldearen oinarriekin eta helburuekin herriko hainbat alderdi politikok, erakundek, sindikatuk, taldek eta 600 banakok baino gehiagok egin dute bat. Hala, atxikimendu horiek Euskararen Behatokia eta Justizia administrazioa bidaliko dituzte.

Horrez gain, prentsaurrekoan aurreratu zuten beste kanpaina bat ere hasiko dutela, herritarrak kontzientzia daitezen euskal komunitate bat garelako eta dagozkigun eskubideak bermatu

behar direla. Ildo horretan, eskaera bat egin diete herritarrei: "Epaitegian ezer egiteko dutenean, hau da, ezkontza, hiletza, jaiotza edo bestelako eginbideren bat, euskaraz egiten ahalegintzea. Azken baten, herritarrak direlako normalizaziorako zutabe garrantzitsua".

Hala ere, Justizia Euskararentzat taldeko kideak ohartuta daude Justizia administrazioak berak zeresan handia duela, herritarren ahalegina garrantzitsua den arren: "Eginbide guztiak erraztasunez egin ahal izateko,

euskarari gaur egun ez duen lehentasuna eman behar dio, bai administrazioako langileak euskaldunduta baita inprimakiak ere euskaratuta ere". Hori horrela, eskaera bat egin diote Justizia administrazioari: "Benetako hizkuntza legedi propioa sortzea".

Kanpaina hori ez da Bergaran bakarrik egingo. Izan ere, Debagoienara ere zabalduko dute. Bestalde, jaiotza, ezkontza edo bestelako ziurtagirik euskaraz lortzeko oso bide erraza dagoela ere gogoratu zuten: www.justizia.net helbidean, hain justu.

LABUR

Udaberriko jaiak prestatzeko ikastaroa Pertxan

Pertxa elkarteak Udaberriko jaiak prestatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaro hori apirilaren 15an izango da, 2tik 25era, martitzenetan eta egueetan, 16:30etik 18:30era.

Izena emateko epea martxoaren 24ra arte egongo da irekita eta interesa duen edonork har dezake parte, baina plazak mugatuak dira. Izena Pertxa elkartearen bertan edo 943 76 33 50 telefonoan eman beharko da, eta prezioa 60 euro da. Ikastaroa Zelai Zabala jatetxeko Maider Betelu sukaldariak emango du.

Udan Txernobilgo umeak etxeetan hartzeko deia

Aurreko urteetan moduan, Txernobilgo ezbehar nuklearraren irradiazioak jotako ume ukrainarrak aldi baterako etxeetan jasotzeko deia egin du Chernobilen Lagunak elkarteak. Elkarteak guztien laguntza eskatu du, ume horiek euren inguruneetatik irten eta defentsak berreskuratzeko aukera izan dezaten. Horrela, Ukrainako neguari aurre egin ahal izateko sendoago egongo dira.

Uztailean eta abuztuan umeren bat hartzeko interes dutenek Carmen Ruiz Ortegarekin jarri beharko dira harremanetan, telefono honetan: 943 83 04 00.

Horrez guztiaz gain, diru ekarpena egiteko interesa dutenek bi zenbaki hauetako baten egin dezakete: Gipuzkoako Kutxako 2101 0069 43 001090132.0 zenbakian edo, bestela, Euskadiko Kutxako 006.0.01327.1 zenbakian.

Metagra eta Miguel Altuna, eskutik

MONIKA BELASTEGI


Joan den astean, Miguel Altuna Institutuko hainbat ikasle eta irakasle Metagran izan ziren bisitari, azken horrek egin zuen ate irekien jardunaldian. Ikastetxeko kideez gain, Renault etxeko bi ordezkari ere izan ziren.

Ekitaldiaren hasieran, Kalitate Osoaren printzipioaren gainean hainbat azalpen eman zituzten lantegiko arduradunek institutuko ikasleei, eta horrez gain, lantegia ikusteko aukera ere izan zuten. Horrekin batera, lantegian eskari bat jasotzen dute-

netik produktua amaitu arte izaten diren hainbat fabrikazio fase ikusteko aukera ere izan zuten.

Bestalde, Miguel Altunak inguruko enpresendako duen garrantzia azpimarratu zuten Metagrako ordezkariak. Han, esaterako, 77 langileetatik, %70ek Miguel Altunan ikasi dute.

Metagrari dagokionez, ISO/TS 16949 ziurtagiria jaso du duela gutxi; ISO arauen 9000 serieko laburpena, hain zuten. Eta autoen sektorean indarrean dauden erreferentzialak ere baditu. Bergaran lortu duen lehen enpresa da, eta estatuan 174k baino ez dute.



Metagra, Miguel Altuna eta Renault-eko ordezkariak bisitako egunean egindako talde argazkian.

ZABORRA/ Erabiltzaileei atarian jarritako oharraren bidez jakinaraziko diete aldaketa

Gune batzuetan zabor-biltze egunak aldatuko dituzte

MONIKA BELASTEGI

Herriko hainbat auzo eta kaletan zaborra jasotzeko egunak aldatu egingo direla aditzera eman du Mankomunitateak ohar baten bidez. Datorren domekatik aurrera, (hilak 17), sartuko da indarrean egutegi berria. Erabiltzaileei jakinarazi egingo diete.

Dagoeneko jarri dituzte zaborrendako edukiontzi berriak herriko kale eta auzoetan. Hori horrela, zaborrendako edukiontziak albotik husten dituzten kamioien ibilbidea egokitu egin dute. Horren ondorioz, herriko hainbat kale eta auzotan bilketa-egunak ere aldatu egingo dituztela eman du aditzera Debagoieneko Mankomunitateak, BERRIGARAko erredakziora bidalitako ohar baten bidez.

Aldaketa hori kale eta auzo batzuetan bakarrik gertatuko da; orain arte, zabor-bilketa martitzenetan, eguenetan eta domeketan egiten zuten kale eta auzo batzuetan. Egun horien ordez, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan hustuko dituzte edukiontziak gune horietan. Alda-



Hainbat kale eta auzotan aldatu egingo dituzte zaborra ateratzeko egunak.

keta hori datorren domekan, hilaren 17an, jarriko da indarrean.

ABISUA ERABILTZAILEEN ATARIETAN JARRIKO DUTE

Aldaketa horien berri etxeetako atarietan ere emango dute; ohar bat jarriko dute atarietan. Man-

komunitateak esan du eguaztenean hasi behar zirela oharrak jartzen, eta gaurko jarrita egon behar ziren.

Horrez gain, zaborrendako edukiontziaren pegatinak jarriko dituzte, bakoitzari dagozkion bilketa-egunak zehazteko.

LABUR

Udalaren oharra Mekolalden, trenbide zaharrean, dauden egur pilak kentzeko

Udalak erredakziora bidalitako ohar baten bidez aditzera eman nahi die, dagokienei, hamar eguneko epea dutela Mekolalden, trenbide zaharreko ibilbidearen alde bietan pilatutako egurra handik kentzeko.

Oharrak gehitzen duenez, epe hori igarota bide hori itxi egingo dute ibilgailuendako, eta oinezkoendako aisialdigune gisa berreskuratuko dute.

Mendi irteera antolatu dute Pol-Polek eta Alpino Gorlak domekarako

Domekarako mendi irteera antolatu dute Pol-Pol eta Alpino Gorla taldeek. Aritxulegi eta San Martzial arteko ibilbidea egitea da helburua. Interesa dutenek Pol-Pol tabernan eska dezakete txartela. Irteera 07:00etan izango da, Fraisko zuritik.

Turismo Bulegoa gaur, egubakoitza, ireki eta apirilaren 7ra arte egongo da zabalik

Aste Santuko oporren atarian egonik, gaur, egubakoitza, irekiko dute Turismo Bulegoa, eta halaxe egongo da ia hogeita bost egunez, apirilaren 7ra arte, hain zuzen. Ohiko ordutegia izango du eta bisitaldi gidatuak ere eskainiko dituzte.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea irekita dago

Urtero moduan, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu zuen Udalak otsailaren 22an, eta 30 eguneko epea dago errolda horren aurkako errekurtsioak aurkezteko. Zerga ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 22an bertan hasi zen eta maiatzaren 11n itxiko dute. Hori horrela izanik, maiatzaren 13tik aurrera errekararekin eskatuko dute ordainketa.

LUIS MARIA OZAETA ETXABE

Gesalibar Kontenedoreak

KONTENEDOREAK, MINI-KONTENEDOREAK. INDUSTRIA ETA OBRETAKO HONDAKINAK JASOTZEN DITUGU. GRUA ZERBITZUA

GESALIBAR
670-770896
670-799735
943-799735

Telefonoak
670 77 08 96
659 77 08 96
670 79 97 35
943 79 97 35

Etxebarritxo baserria 6
Gesalibar auzoa 20500 Arrasate

Barrenkalea 30
20570 Bergara


BERGARARREK ERE, TXOOOOTX!

Gaztetxeok eta Arranokok antolatuta, sagardotegian izan ziren hainbat bergarar joan den zapatuan (goiko argazkian). 35 bat lagun joan ziren, eta Astigarragako sagardotegi baten afaldu zuten. Baina ez ziren sagardotegira joandako bergarar bakarrak izan. Izan ere, Jardun eta Soroluzeko Pil-Pilean elkarrekin antolatuta, 40 bat lagun egon ziren Hernaniko sagardotegi baten, tartean baita trikitilariak eta bertsolariak ere. Ondo afaldu ostean, Hernanin bueltatxo bat egiteko aukera ere izan zuten. Dagoeneko hasi dira hurrengo urterako plana egiten; ondo pasatu zuten adierazle! Beste adierazle bat argazkia bera da; begiratu bestela zelako umoretsu dauden guztiak!



EMAKUMEAK JAI GIROAN

Afariak, bazkariak, meriendak..., denetik egin zuten joan den egubakoitzean herriko hainbat emakumek. Izan ere, martxoaren 8a zen, Emakume Langilearen Eguna. EPAko ikasleek, eskulanean ibiltzen direnek eta yoga ikastaroan dihardutenek Pertxa elkartearen ospatu zuten egun hori: txokolate-jana izan zuten, baita dantzaldia ere. Beste hainbat lagun taldek, berriz -argazkikoek, esaterako- afaria egin zuten martxoaren 8a ospatzeko. Zorionak, bada, emakume guztiei!



ETXANIZI OMENALDIA

Joan den egunean, omenaldia egin zioten Gure Ametsakoek Ramon Etxaniz txistulariari. Horrela, txistuaren alde egin duen lana eskertu nahi izan diote Ramoni. Oroigarri bat eman zioten elkarteko kideek, eta omenaldiaren ostean, afaria egin zuten han elkartutakoek.



ATHLETICZALEAK VALLADOLIDEN

Otsailaren 24an egon ziren Peña Athletic-eko kideak Valladoliden. 28 lagun joan ziren, eta nahiz eta euren taldeak galdu -2-0 galdu zuen Athletic-ek-, ondo pasatu zuten. Eguraldi ona egin zien, eta oso giro ederra egon ei zen futbol zelaian. Izan ere, ez ziren Valladolidera joaten bakarrak izan; euskaldun asko joan omen zen Bilboko taldea animatzera.

BERGARARRAK MUNDUAN

INAZIO IRIGOIEN

35 URTE / ARGAZKILARIA / DUBLIN

“Argazkilari egiten dut lan errepublikazaleen ‘Anphoblacht’ aldizkarian”

AINZANE IRIZAR

Duela bederatzi urte joan zen Inazio Irlandara bizi izatera: “Momentu hartan, ikasketak bukatuta neuzkan eta lan barik nengo; orduan erabaki nuen Dublinera joatea”, gogoratzen du Inaziok. Eta topatu zuen lana, bai.

Hasieran, “lan kaskar” batzuk egiten hasi zen, tabernetan eta antzerako tokietan. Era berean, gogor ari zen ingeleseko eskoletan. Eta lana topatzeko balio izan zion, gainera, ingelesak. Izan ere, euskaldun batzuek Cork-en jarritako negozio baten lanean hasi zen, ingelesez zekien norbait behar zuten-eta. Han hilabete batzuk egin eta gero, arrain enpresa baten ibili zen lanean, Cork-en bertan.

Handik Waterford-era joan zen, arrain lantegi batera lan egitera. Sei hilabetez lantegi horretan lan egin ostean, Dublinera itzuli zen Inazio: “Bost urtez ibili naiz kirol denda baten lanean, Dublinen; eta orain, argazkilari nabil *Anphoblacht* astekarian”, diosku Inaziok. Astekari hori Irlandako errepublika zaleen aldizkaria da. Latinoamerikako elkarta-

sun talde batekin ere lan egiten du, astean bi egunean.

Oso gustura ei dago Inazio. Hasieran, ingelesarekin nahiko lan izan ei zuen; bazekien ingelesez, baina ordu asko pasatu ei zituen hizkuntza hori ondo ikasten.

Irlandarrak oso irekiak ei


“Irlandarrak irekiak dira, baina harremanak mantentzea oso zaila da”

dira, “baina oso zaila da lagunak egitea; izan ere, irekiak izan arren, ez dituzte harremanak mantentzen, guk bezala”, azaldu digu.

Euskal Herriko eguraldiaren hutsunea nabaritzen du Inaziok: “Hemen pasatu ditudan bederatzi urteetan, uda bakararra bizi izan dut”, azaldu digu. Udako egun beroak izan nahiko lituzke Irlandan.

Urtean behin etortzen da Bergarara; udan, jakina. Aurrera begira, oraingoz, han jarraitzeko asmoa dauka.

Urtean behin etortzen da Bergarara; udan, jakina. Aurrera begira, oraingoz, han jarraitzeko asmoa dauka.



MINGAINARITIRAKA



Nere Arenaza

IGERILEKUKO ATEZAIÑA

Aste honetan bertan hasi da Nere igerilekuetan lanian. Enpresaritza ikasketak egin zittuan Nerek, eta 28 urte dauzka. Egunduz gertatu arren, hartu ei jao martxia lanari.

Ze moduz lehenengo egunak?

Egixa esan, luze egittin da, baiña ja eskua hartzen hasi naiz; dana ohitzia da.

Kirolzalia izango zara, ezta?

Bueno, zalia bai, baiña ez dot askorik praktikatzan. Lehen, eskubaloian jokatzen neban, mendira be gehixago juten nintzan, baiña oin...

Igeri egittia gustatzen jatzu?

Ez; umetan gustatzen jaten, baiña oin nahixago dot aire librian zeozer egittia.

Ikusteko ze kirol gustatzen jatzu?

Eskubaloia eta atletismua, esaterako.

Kirolari bat?

Joseba Beloki.

Lanetik irtendakuan, zein da zureta-ko planik idealena?

Nik egittin dotena da lagunekin kalera urten; baiña ideala igual gehixago izango da Gorla aldiaren bueltatxo bat egin eta kantinan trago bat hartzia.

Aste Santurako planik badaukazu?

Ez, baiña azkeneko astera arte zain gare, ia txollo-ren bat lortzen dogun.

Definituko ziñuke zeure burua?

Ezetz esaten ez dakixen pertsona bat, baita burugogor samarra be.

Gaba ala eguna?

Bixak. Juergarako, gaba; egunian, berriz, gauza asko egin leike.

Udia ala negua?

Udia; berua nahixago dot hotza baiña.

Gustoko txoko bat?

Zarauzko hondartzia.

Beti egin nahi izan dozun zerbait, baiña oindio lortu ez dozuna.

Bidaiazia; Afrikara jun nahiko neuke, Kenya aldia ikustera.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Martin Garmendia

INDIA / 2000ko abuztuaren

Betidunik izan dut Indiara joateko gogo, eta azkenean, duela bi urte joan nintzen. Antolatutako bidaia baten eman nuen izena; Bergararik neu bakarrik joan nintzen, eta 21 egun egin genituen Indian zehar.

Lehenengo, New Delhira joan ginen, Indiako hiriburura. Egia esan, ez zitzaidan askorik gustatu hiria. Gauza asko dago ikusteko, baina ez dut oso oroitzapen onik. Lehendabiziko eguna zenez, pixka bat galduta sentitu nintzen; dena ezberdina zen, izugarriko beroa egiten zuen... Handik Rajasthan eskualdera joan ginen. Han, parke nazional bat ikusi genuen, Sariskako parkea, hain zuzen ere. Zoragarria da parke hori; gaztelu bat ere badago, ikusgarria, benetan.

Gero, Jaipurera joan ginen, ikusi beharreko hiria. Oso hiri ederra da Jaipur, gaztelu eta monumentu ederrez betetako hiria. Agran ere egon ginen; han dago Taj Mahal erlijogune entzutetsua.


Baina niri gehien gustatu zitzaidan hiria Benares da. Ganges ibaia pasatzen da handik, eta hara joaten dira hinduistak hiltzera eta gorpuak erretzera. Adibide bat jarriko dut ikusteko zelako jarrera duten heriotzaren aurrean: gorpuak erretzen ari ziren bitartean, handik metro gutxira gazte talde bat gain batera igo eta errekarara saltoka zebilen, jolasean.

Bidaia interesgarria izan zen. Egia esan, oso herrialde kaotikoa iruditu zitzaidan: zirkulazio handia, kaleetako jendetza eta mugimendua, animaliak kalean gora eta behera ibiltzen dira, hiriak oso zikin daude... Bestalde, kontrastez betetako herrialdea da: batetik, gaztelu ederrak, eta bestetik, izugarriko pobrezia; ehunka erlijio, hizkuntza eta tribu... Dena dela, edozeini gomendatzeko moduko bidaia da.

AINZANE IRIZAR



Gaztelu ugari bisitatu zituzten bidaian.



“Kontrastez betetako herrialdea iruditzen zait India”

“Benares hiria izan zen Indian gehien gustatu zitzaidana”

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK
MOKETA ETA SINTASOLA
IZTUKU ESPONJATUA

PAPER PINTATUAK
HAREA ZORROTADA
IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogitartekoak
Etxeko ogia

ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Barrenkalea 16. Tel.: 943 76 20 62

TXIRRINDULARITZA

Martitzenean jokatu den Gorlako Igoerak ibilbide berria izango du

Amateur mailako Euskal Herriko txirrindulari onenak batuko dira Bergaran

EDU MENDIBIL

Lehenbiziko aldiz, Gorlako Igoerak ibilbidea aldatuko du. Orain arte igoera bakarria egin behar izaten zuten, baina martitzenean, 90 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre txirrindulari amateurrek. Bestalde, aurten ez da betaranoen probarik jokatu.

Martitzeneko lasterketa 10:00etan hasiko da, eta txirrindulariek bi aldiz igo beharko dute Gorlako mendatea: 43. kilometroan lehen aldiz eta proba amaieran bigarrenik. Tartean Deskargako mendatea ere izango dute, 72. kilometroan, hain zuzen. Proba 12:30 aldera amaituko da.

Hala, amateur mailako tropelean tradizio handia izan duen probako ibilbidea alda egingo da aurten, 28. aldian. Lokatza Ziklismo Eskolako presidente Mikel Larrañagaren hitzetan, "azken urteotan partaidetzak behera egin du, eta ahalik eta talde gehienak etortzea nahi genuen. Bestalde, ordu erdiko lasterketa egin edo aurtengoaren modukoa egin erabakitzeke orduan, lana eta aurrekontua antzekoak zirenez, aldatetarako urratsa emateko ordua zela pentsatu genuen. Zaleendako ere proba ikusgarriagoa izango dela uste dugu. Ikusi behar zer nolako erantzuna jasotzen dugun. Bestalde, betaranoen proba bertan behera laga dugu; iaz, hamar lagun besterik ez zen etorri".



MIKEL LARRAÑAGA

Iberdrola taldeko Alberto Contador txirrindulariak irabazi zuen iaz.

EHUN LAGUNDIK GORAKO PARTAIDETZA Martitzenean, Euskal Herriko talde gehienak etorriko dira Gorlako Igoeran parte hartzera. 110 bat txirrindulari izango dira. Faboritoak aurreratzea zaila izaten da, baina Alberto Contador (Iberdrola) -iazko irabazlea-, Dion Galparsoro (Caja Rural) edo

Ricardo Serrano (Baque) aurrean izan daitezke.

Herriko partaidetzari dago-kionez, CDR taldeko Jon Mendizabal, Igoitz Gabilondo eta Zigor Medina, Ulma-Cegasa taldeko Ander Agirre eta Urnietatel Moulinex taldean ari den Iker Sánchez izango dira irteeran.

Igerileku olinpikoaren aldeko sinadura batzea hasi dute

E.M.

Igeri Elkartek, 50 metroko igerilekua ez kentzeko eskatzeko, sinadura batzea hasi zuten zapatuan. Udalak Agorrosingo kirolgunerako landutako aurreproiektuan igerileku hori kentzea aurrez ikusi du.

Udalaren aurreproiektuak dioenez, oraingo instalazioak bota eta Agorrosinen hiru igerileku egiteko asmoa dago: igeriketarako bat (estalia eta 25x25 metrokoa), beste txiki bat umeendako (estalia hori ere) eta beste bat, biribila, eta udan estalkirik izango ez lukeena. Kirolgune berria egiteko lanak udazken aldera hasiko lirateke ziurrenik.

Bergara Igeri Elkartek hasieratik azaldu zuen bere desadostasuna aurreproiektuarekin.

Horrela, zapatuan, esan bezala, 50 metroko igerilekua ez kentzeko eskatzeko, sinadurak batzen izan ziren San Martin plazan.

ERABILTZAILEEN IRITZIA

Igeri Elkarteko idazkari Carlos Fernándezen ustez, "50 metroko igerileku batekin Udalak bete nahi dituen behar guztiak bete lirateke, aisialdirako eta igeriketarako aukera egongo zelako. Hainbat jardueratarako egokitu liteke igerilekua. Badakigu igerilekua berritzeko premia handia dagoela, baina 50 metroko igerileku bat izatea beharrezkotzat jotzen dugu. Eta igerilekuetako erabilzaille askok iritzi bera dutela sumatu dugu. Bestalde, Udalak ez die proiektu horren inguruko informazio nahikoa eman herri-tarrei". Aste Santu arte sinadurak batzen jarraituko dute.



Zapatuan 400 sinadura inguru batu zituzten Igeri Elkartek.

Nesken futbol taldea sailkapenaren erdialdean sailkatu da

E.M.

Bergara KEko nesken futbol taldeak Liga txapelketa bukatu zuen zapatuan. Bina berdindu zuen Amaiak Bat taldearen aurka, Ipintzan. Mahoneroek 22 partidu jokatu dituzte: horietatik, zortzi irabazi, hiru berdindu eta hamai-ka galdu egin dituzte. Bittor Agirrebarrenak zuzendutako taldea sailkapenaren erdialdean sailkatu da, 7. postuan.

Zapatuan, debarrak aurreratu ziren, baina mahoneroek buelta eman zioten partiduari, Silvia Valorrek egindako bi goli esker. Partidua bukatzeko 20 bat minutu falta zirela, binakoa egin zuten

kostaldekoez. Domeka eguerdian, berriz ere Amaiak Bat taldearen kontra jokatu dute Ipintzan, kopa txapelketan.

AGIRREBARRENAN, AGUR TALDEARI

Bittor Agirrebarrenak Liga txapelketa hobe egitea espero zuen: "Jokalari berri asko genituen eta esperientzia falta sumatu dugu. Bestalde, lesioekin ere ez dugu zortzerik izan, eta jarraipena falta izan zaigu, taldean 22 jokalaririk izan arren". Agirrebarrenak zortzi urte daramatza entrenatzaile postuan eta denboraldi amaieran utzi egingo du kargua: "Pitxka bat dezepzionatuta nago, zale-tasunak behera egin duelako".



Nesken futbol taldeak berriz ere Amaiak Bat taldearen aurka jokatu du domeka eguerdian Ipintzan, kopako txapelketan.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

KOPA TXAPELKETA

| | |
|---------------------------------|------|
| Komando Piperrak-Bicip. Igartua | 10-4 |
| Vacalouras-Bayer | 1-7 |
| Patxaran Team-Kanpazar | 5-6 |
| Artekale-Ganbara | 7-2 |
| THT-Amilotx | 7-1 |
| Argandolas-Eri | 4-3 |

LIGAKO PLAY-OFFAK

| | |
|----------------------------|------|
| A Ze Flaxa-Pagomendi | 4-4 |
| Bar Bedarreta-Dedo Pafarru | 7-2 |
| Errotagain-Amoskibar | 4-3 |
| Bar Aterpe-Bar Ugarte | 3-14 |

SAILKAPENA

A MULTZOA

| | P | J |
|--------------------------|----|----|
| 1. Mongatxurrak | 46 | 19 |
| 2. A Ze Flaxa | 46 | 19 |
| 3. Bar Ugarte | 41 | 19 |
| 4. Eri | 31 | 19 |
| 5. Komando Piperrak | 26 | 19 |
| 6. Kanpazar | 21 | 19 |
| 7. Bar Ganbara | 13 | 19 |
| 8. Amilotx | 8 | 19 |
| 9. Biciprecisión Igartua | 8 | 19 |
| 10. Agirrebeña | 0 | 19 |
| 11. Torrekua | 0 | 0 |

B MULTZOA

| | P | J |
|----------------------|----|----|
| 1. Bar Bedarreta | 52 | 18 |
| 2. Bar Canalejas | 38 | 18 |
| 3. Amoskibar | 27 | 18 |
| 4. Aterpe | 27 | 18 |
| 5. Txipiron | 26 | 18 |
| 6. Vacalouras | 25 | 18 |
| 7. THT | 20 | 18 |
| 8. Irubide | 19 | 18 |
| 9. Artekale pizzeria | 15 | 18 |
| 10. Etengabe | 0 | 18 |

C MULTZOA

| | P | J |
|------------------|----|----|
| 1. Errotagain | 46 | 16 |
| 2. Artusamak | 35 | 16 |
| 3. Bayer | 26 | 16 |
| 4. Argandolas | 25 | 16 |
| 5. Dedo Pafarru | 25 | 16 |
| 6. Pagomendi | 25 | 16 |
| 7. Ortzi | 13 | 16 |
| 8. Patxaran Team | 7 | 16 |
| 9. Timofonika | 6 | 16 |
| 10. Bildurbarek | 0 | 0 |

PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Artusamak-Txipiron. Bar Canalejas
10:30: Canelajas-Pagomendi. Txipiron



ARGI IBILI!

ASTEBUKAERAN BI PARTIDU BAKARRIK JOKATUKO DIRA

San Joseko zubia dela eta, hainbat taldek partidurik ez jokatzea eskatu zioten antolaketari batzordeari. Gauzak horrela, bi partidu besterik ez dira jokatuko astebukaeran, biak domekan: Artusamak-Txipiron ligako play-offetako norgehiagoka eta Bar Canalejas-Pagomendi, kopa txapelketaren barruan.

ASTE SANTUAN EZ DA PARTIDURIK IZANGO

Datorren astebukaeran, martxoak 22 eta 23, ligako eta kopako kanporaketak izango dira Labegarietako kiroldegian. Ondoren, Aste Santuko oporrak direnez, taldeek atsedena hartuko dute. Bestalde, Amoskibar taldeko Rafa Moral jokalaririk partidu bateko zigorra bete beharko du, antolaketak hala erabakitak.

GORA ETA BEHERA

PAGOMENDI

Pagomendi taldeak lehen ezustekoa eman zuen ligako play-offetan. C multzoan play-offak jokatzeo ozta-ozta sailkatu ondoren, Pagomendik A Ze Flaxa kanporatu zuen penalti jaurtiketetan.

BAR ATERPE

Liga txapelketa ona egin zuen Bar Aterpe taldeak, B multzoko laugarren postua eskuratu. Hala ere, joko eskasa azaldu zuen Bar Ugarteren kontrako play-offean, eta uste baino errazago galdu zuen (3-14).

FOTOKIROLA



Senior eskubaloi taldea, txapeldun

Bergara KEko senior eskubaloi taldeak Liga txapelketa eskuratu du, domekan Arrasateri 21-28 irabazita. Bergarak Bigarren Maila Nazionalera igotzeko fasea hasiko du zapatuan, Bilbon, Deustu-Loiola taldearen aurka. Sei talde izango dira iguera fasea jokatzen, eta bi onenak igoko dira mailaz. /E.M.

GAINBEGIRATUA

MENDIA ETÁ ESKIA

Mendi irteera domekan eta eskiatzera joateko irteera Aste Santuan

Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek Aritxulegira eta San Martzialera mendi irteera antolatu dute domekan. Irteera 07:00etan izango da, frontoitik. Txartelak, Pol-Polen. Bestalde, martxoaren 29tik apirilaren 6ra Alpeetara eskiatzera joateko irteera antolatu du Pol-Polek.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Bergara-Soraluze
Bigarren mailako kadeteak. Zapateria. 10:30. Ipintza
Bergara-Hondarribia
Preferentea. Zapateria. 16:30. Agorrosin.
Bergara-Elgoibar
Infantilak. Zapateria. 18:30. Ipintza.
Bergara-Zestoa
Lehen mailako gazteak. Domeka. 10:00. Ipintza.
Bergara-Amaikak Bat
Neskak. Domeka. 12:00. Ipintza.

SASKIBALOA

Bergara-Aldapeta
Senior mutilak. Zapateria. 16:00. Kiroldegia.
Bergara-Etxadi
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia.

PILOTA

Udaberriko Txapelketa (banaka)
Bergara-Amezketak. Lehen mailako kadeteak.
Bergara-Hernani. Gazteak.
Bergara-Oiartzun. Bigarren mailako seniorrak Egubakoitza. 19:00. Udal Pilotalekua.
Bergara-Goierri. Lehen mailako seniorrak Zapateria. 13:00. Udal Pilotalekua.

EMAITZAK

FUTBOLA

Pasajes 1 Bergara 0 (Preferente maila)
Bergara 1 Soraluze 1 (Lehen erregionala)
Bergara 2 Amaikak Bat 2 (Neskak)
Bergara 2 Pasajes 1 (Ohorezko m., gazteak)
Ikasberri 2 Bergara 0 (Lehen m., gazteak)
Sp. Herrera 6 Bergara 2 (Ohorezko m., kadeteak)
A. Ondarroa 2 Bergara 2 (Bigarren m., kadeteak)
Urola 4 Bergara 2 (Infantilak)

ESKUBALOA

Arrasate 21 Bergara 28 (Senior mutilak)
Bergara 17 Aloña 18 (Gazte mutilak)
Bergara 21 Tolosa 18 (Kadete mutilak)

SASKIBALOA

Euskalduna 75 Bergara 55 (Senior mutilak)
Bergara 52 Arrasate 23 (Gazte mutilak)
Tolosa 73 Bergara 45 (Kadete mutilak)

PILOTA

Bergara 21 Zurriola 22 (Bigarren mail. kadeteak)
Errenteria 12 Bergara 22 (Bigarren m., seniorrak)
Urretxu 22 Bergara 20 (Lehen mailako seniorrak)
Usurbil 22 Bergara 14 (Lehen mailakokadeteak)
Antzuola 22 Bergara 13 (Seniorrak)
Antzuola 22 Bergara 22 (Kadeteak)

JOKOZKANPO

Igor Larrañaga

ENTRENATZAILEA

Zapatuan debuta egin zuen lehen erregional mailako futbol taldeko entrenatzaile postuan, Karlos Lasa ordezkatzu.

Egoera larrian hartu duzu taldearen ardura.

Bai, horrelako egoerak ez dira inoren gustokoak, baina zuzendaritzak entrenatzaile postua hartzeko eskatu zidan aurreko astean eta baiezkoa eman nuen. Ez nuen espero entrenatzaile aldaketa gertatuko zenik. Ea guztion artean kapaz garen zulotik ateratzeko. Jokalariek ondo ezagutzen ditut eta ziur naiz sailkapenean gora egingo dugula. **Debuta ez zen zuk espero bezain ona izan?**

Zapatuan, Agorrosinen, Soraluzeren aurkako partiduan, azken minutuetan lortu genuen bana berdintzea. Hasieratik oso ondo jokatu genuen, baina gola jaso ondoren, beraien atzera egin zuten eta bigarren zatian arazoak izan genituen gure jokoa egiteko. Ikusitakoa ikusita, berdinketa ontzat ematen dut.

Zortzi partidu geratzen zaizkizue.

Bai eta hurrengo partiduetan sailkapenean gu baino atzerago direnen kontra jokatuko dugu. Gure benetako maila azaltzen badugu, ez dugu arazorik izango.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ile apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



Blackie, Keish eta Ray hirukoteak osatzen du Hard-Ons taldea.

Estatuan bi kontzertu baino ez ditu egingo taldeak: bata, Bergaran; bestea, Granadan

Australiako Hard-Ons taldea gaztetxean izango da bihar

MONIKA BELASTEGI

Australiako Hard-Ons pop punk talde ezagunak kontzertua egingo du bihar, 22:30ean, gaztetxean. Taldeak Estatuan egiten duen bigarren bira da, eta Euskal Herrian zapatuko kontzertu hori baino ez du egingo. Talde gonbidatuak: Rockzilla eta Gaizkiñe.

Hard-Ons punk musikako talde handiak bisita egingo digu zapatuan. Australiako talde horren ibilbidea ez da makala: orain dela hamazortzi urte sortu zuten. Badi-rudi Blackie-k, taldeko kideetako batek, Sex Pistols taldea telebistan ikustearen ondorio dela Hard-Ons, orduantxe bereganatu zuen-eta punk musika.

Australiako taldeak 1985. urtean eman zuen argitara lehenengo lana, *Surfin on my face*, eta kaleratu bezain laster bigarren postua lortu zuen Australiako zerrenda independenteetan. Lehenengo disko haren ondorioz, Sex Pistols, Kiss, Motorhead, Beach Boys eta Ramones taldeen Australiako bertsioa zirela ere esan zuen norbaitek. Hori guztia, talde bakar baten.

Gaur egun, hogeita hamar urteak ondo beteta dituzte Hard-Ons taldeko hiru kideek, baina iturri beretik edaten jarraitzen

dute, eta hori nabaria da kaleratu duten azken lanean, *This Terrible Place* diskoan.

Iaz, otsailean, argitaratu zuten diskoa, eta hainbat estilo eta eragin nabari dira: punka ezinbestean, eta horrekin batera pop uki-tuak, *bubblegum*, *psicodelia* eta beste hainbat estilo eta eragin. Hala eta guztiz ere, eta hamazortzi urteko ibilbidea egin duten arren, hirukote australiar horren estiloak guztiz koherentea izaten jarraitzen du.

Azken lan horrek oso kritika onak izan ditu. *Rolling Stone* aldizkariak eta Australiako *Sydney Morning Herald* egunkariak (Australian egunkari irakurriena) taldeak eman duen diskorik

onena moduan kalifikatu dute *This Terrible Place* lana.

HOGETA HAMAR LAN KALEAN

Azken lan horrekin hogeita hamar dira, hainbat formatutan, taldeak kalean dituen lanak. Salmenta kopurua ere oso esanguratsua da talde horren jarraitzaile kopuruaz jabetzeko: 200.000 kopiatik gora saldu dute. Horrez gain, Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan hainbat bira egin dituzte euren jaioterrian egingakoez gain. Bestalde, izen handiko taldeekin, ere eman izan dituzte kontzertuak: besteak beste, Faith No More, Buzzcocks, Agnostic Front eta Red Hot Chili Peppers taldeekin.

Kontzertu bakarra

Espainiako Estatuan egingo duen biran bi kontzertu baino ez ditu emango Hard-Ons talde australiarrek. Eta Euskal Herrian, bakarra, Bergarako gaztetxean egingo duena, hain justu ere. Bestea Granadan eskainiko du, Planta Baja kontzertu aretoan. Aurtengoa Hard-Ons taldeak estatura egiten duen bigarren bisita da; lehenengoa 1993. urtean egin zuen taldeak.

Gaztetxean egingo duten kontzertua 22:30ean hasiko da, eta sarrerak han baino ez dituzte salduko, ez da aurrealmentarrik egingo. Sarrera sei euro kostatuko da (1.000 pezeta). Australiako taldearekin batera, Rockzilla eta Gaizkiñe taldeak arituko dira, gonbidatu gisa.

Almerian eta Murtzian izango da Aritzeta Aste Santuan

MONIKA BELASTEGI

Aritzeta Abesbatzak emanaldiak egingo ditu Murtzian eta Almerian Aste Santuan.

Murtziako kontzertua zapatuan eskainiko dute, Aguilasen. Almerian, berriz, domekan, Cuevas de Almazoran.

Aritzeta Abesbatza hegoalderantz joango da Aste Santuan. Eguazten gauean irten, eta astelehenera arte Murtziako eta Almeriako probintzietan kontzertu bana egingo dute.

Murtziako Aguilasen egingo dute lehenengo kontzertua. Zapatuan, 30ean, izango da, Paco Rabal kultura etxean, 20:15ean.

Bigarren emanaldia, berriz, Almerian egingo dute, Cuevas de Almazora herrian, hain zuzen ere. Emanaldi hori domekan egingo dute, Nuestra Señora de la Asuncion parrokian, 20:15ean.

Egingo duten erreperitorioari dagokionez, obra polifonikoak eta, batez ere, folklore euskalduna egingo dute.

TALDEKIN HARREMAN ESTUA IZATEA DA GARRANTZITSUENA

Ez da lehenengo aldia Aritzeta bidaia hori egiten duena. Aste Santuan egingo dutenarekin, hirugarren aldia izango da Aguilas eta Cuevas de Almazorara doazena. Azkena, Gabonetan.

Aritzeta abesbatzako kideen esanetan, hirugarren bidaia hori ere oso pozik egingo dute. Oso harreman ona dute herri horietako abesbatzekin, eta horixe da, hain zuzen ere, bidaia horiek duten alderdi garrantzitsuena: egin eta sendo daitezkeen harremanak. Ildo horretan, Aguilas eta Cuevas de Almazorako abesbatzak gure artera ere etorriko dira, nahiz eta oraindik ez dagoen data zehatzik.



Cuevasen hilaren 30an egingo dute kontzertua, eta Cuevas de Almazoran, 31n.

LABUR

Abian da Bergara Hiria 2002 argazki lehiaketaren hamazortzigarren aldia

Pol-Pol argazki taldeak antolatzen duen Bergara Hiria 2002 lehiaketak oinarriak kalean dira. Euskadin bizi den edozein argazkizalek har dezake parte lehiaketan. Gaia librea da eta zuri-bel-tzeko edo koloretako argazkiak izan ahal dira, eta edozein teknika edo prozedura onartuko dute. Neurriari dagokionez, 30x40 cm-ko kartoi mehean aurkeztu beharko dira lanak.

Azken eguna maiatzaren 22a da, eta udaletxera eramanez edo posta zertifikatuz bidali daitezke. Modalitate bakoitzeko lau sari egingo dira, eta horietako bat herriko onenari emango diote.

Udaleko Euskara Zerbitzuak Koldo Eleizalde literatura lehiaketako oinarriak eman ditu

Aurtengoa XVII. aldia da, eta Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Adinaren arabera bost talde egingo dira. Honako hauek: 1994-95ean jaiok; 1992-93an jaiok; 1990-91n jaiok; 1987-89an jaiok; eta 1986an edo aurretik jaiok. Literatura-lanen generoari dagokionez, lehenengo lau taldeetan ipuinak izan beharko dira eta bosgarren taldean, berriz, bi atal izango dira: ipuinena eta olerkiena. Luzerari dagokionez, lehenengo hiru taldeek gehienez bi orrialdeko luzera izan beharko dute; laugarren taldeak bi orrialdetik bost orrialde artekoa, eta bosgarren taldeak hiru orrialdetik hamar orrialdera.

Lanak, *Literatura Lehiaketa* izenburuarekin, Udaleko Euskara Zerbitzura bidali edo eramanez beharko dira, eta lanok aurkezteko epea apirilaren 10ean bukatuko da.

E, TXO!

TXORIMALOAK PRESTATZEN

Eta ez txotxongiloak, aurreko astean esan genizuen moduan. Erramu Zapatu egunera-ko, martxoaren 23rako, txorimaloak prestatzen jarraituko dute oraingo asteburuan Kuadrillategi-koek. Gogoratu egun horretarako, urtero moduan, txorimalo lehiaketa antolatu duela Jardun elkarteak. Zapatu arratsaldean elkartuko dira Kuadrillategi-koak Udal Euskaltegiko egoitzan, arratsaldeko hiru eta erdietan.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Kean eta Neu taldeen kontzertua izango dugu Bergarako gaztetxean, 22:30ean. Bihar, berriz, Hard-Ons talde australiarraren kontzertua izango dugu, 22:30ean hori ere. Euskal Herrian eskainiko duten kontzertu bakarra izango da Bergarako. Australiarrekin batera, Rockzilla Gironako taldea eta Gaizkiñe Andoingo taldea arituko dira.

ZINEMA EMANALDIA

Domeka arratsaldean, *Senderos de gloria* filma ikusteko aukera izango dugu gaztetxean, 18:00etan.

GAZTEEN WEBGUNE BERRIA

Martxoaren 7an estreinatu zuen Eusko Jaurlaritzak gazteendako web orrialde berria. Jaurlaritzako Gazteria Sailaren helburua da gazteendako interesa izan dezakeen informazio guztia eskaintzea orrialde horretan. Hau da orriaren helbidea: gazteinformazioa.net. Bide batez, aipatzekoa da izan dituen lehen kritikak ez direla oso onak izan; bestela, irakurri www.sustatu.com orrialdeko artikulua.

GUREGAIK/ BIDAIAK

Euro gutxi poltsikoan eta ibili munduan

AINTZANE IRIZAR

Aste Santua gainean dugu, eta norabait joan nahi duenak garaia du dagoeneko bidaiak prestatzen hasteko. Gazteek ez dute, orokorrean, aurrekontu handirik izaten, baina badago merke bidaiatzeko aukerarik.

Merkeetan merkeena kanpin-denda eta jatekoa gainean hartuta irtetea da. Euskal Herrian kanpin ugari ditugu. Hainbat prezio dituzten arren, batez besteko bat atera dugu guk: maila ertaineko kanpin baten, sei euroren truke pasatu dezake pertsona batek gau bakoitza. Dena dela, Interneteko helbide hauetan dituzue Euskal Herriko kanpinen gaineko infor-

mazio gehiago: www.euskadi.net helbidean daukazu. Ipar Euskal Herriko kanpinen gainean, berriz, www.infobasque.com orrialdean. Nafarroako kanpinen gainean, azkenik, www.nafarroa.net orrialdean aurkituko duzue.

Aurrekontu handixeagoa izanez gero, baserri turismo batera joatea da beste aukera bat. Horiek ere denetariko prezioak izaten dituzte: 25 eta 75 euro artean kostatzen da gaua pasatzea. Hona hemen hainbat helbide: www.nekatur.net, www.casarralnavarra.com.

Jakina, hamaika aukera dago oporrak merke pasatzeko. Guk horietako batzuk jaso nahi izan ditugu hemen.



'CASAS RURALES CON ENCANTO' GIDALIBURUTIK

Baserri turismo batera joatea da oporretarako aukera merkeenetakoa.

LOTSABARIK/ Jon Kapelastegi

“Aberats izan nahi nuen txikitan”

AINTZANE IRIZAR

Oso lotsatia da Jon; eta batzuetan lotsatiegia dela dio. Hala ere, deitu orduko azaldu zaigu elkarrizketara. Hori bai, honek ere ez digu fantasia sexualik kontatu. Jon ere, zelan ez, Realzalea dugu.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Aberats izan nahi nuen, ondo bizi ahal izateko; egia esan, orain ere aberats izan nahi dut.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zure burua?

Lantegiren baten lanean eta baserrian, orain bizi naizen tokian bizi izaten.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasi egin behar dela.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat horrelako taktikarik; ezinezkoa da nire amarengandik ihes egitea. Izatekotan, gezurren bat edo beste esatea.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Momentua bizi izateari.

• Zure bertute bat?

Oso alaia naiz, eta lagunena laguna.

• Eta hutsune bat?

Oso lotsatia naizela, batzuetan, gehiegi.

• Zerk amorratzen zaitu?

Astelehenetan eskolara joan

beharrak. Baita beste egunetan ere, baina astelehenetan, batez ere, amorratu egiten nau.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Gorputzari orokorrean, eta aurpegiari. Gorputzean, egia esan, batez ere, ipurdiari botatzen diot begia.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Nik ez dut ezer egiten seduzitzeko; neskaren bat etortzen bazait, bada, oso ondo.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Badauzkat fantasiak, baina ez dut horrelakorik kontatuko.




ADINA: 16 urte • **IKASKETAK:** DBH 4 • **ZALETASUNAK:** Eskubaloia eta lagunekin irtetea • **LIBURU BAT:** 'Harry Potter', J.K. Rowling-ena • **FILM BAT:** 'Sé lo que hicisteis el último verano' • **MUSIKA TALDEA:** Slipknot • **KIROL TALDEA:** Reala

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



ZAHARREN ETXETIK



Francisco Javier Leturia psikologo oñatiarra Matia Fundazioko Gizarte Zerbitzuetako teknikaria da.

Leturia: "Zahartze onena izateko urratsak eman behar dira"

EDU MENDIBIL

Osasun zikloaren hitzaldi sorta amaitzeko, Francisco Javier Leturia psikologo oñatiarrak *La madurez. Estrategias de afrontamiento a lo largo del ciclo vital de la persona* izenburuko hitzaldia egin zuen joan den asteko egueñean San Joxepe elkartean.

Heldutasun prozesuaren gainean egin zuen berba Leturiak: "Zahartzaroaren gainean ari garenean, ikuspuntu mugatuarekin egiten dugu askotan, oso ezaugarri bereziak dauzkan aldi bat balitz bezala. Eta muga sakin ezin da jarri, mugak irekiak direlako gaur egun. Hirurogeita bost urte dituen pertsona bat zaharra dela esatea gehiegixto iruditzen zait. Jendea gero eta lehenago erretiratzeko da, pensioak gero eta hobeak dira eta 65 eta 75 urte bitarteko jendea ate berriak irekitzen zaizkio askotan. Laugarren adinari buruz berba egiten da gaur; osasunez ondo badaude, behintzat, garai berri

horri aurre egiteko ez dute arazorik izango. Dena dela, heldutasun prozesuan krisialdiak egotea normala da. Edozelan ere, haurtzaroan edo gaztaroan ere gertatzen dira horrelakoak. Garai batetik bestera igarotzean krisi antzeko bat gertatzea oso ohikoa da. Bestalde, zahartzaroa ezinbestekoa denez, horri aurre egiteko gai izatea eta gertu egotea oso garrantzitsua da".


'ZAHARTZE ARRAKASTATSUA'

Matia Fundazioko Gizarte Zerbitzuetako teknikariak hiru egoera bereiztu zituen zahartzaroan: batetik, gerontologian gero eta gehiago erabiltzen den *zahartze arrakastatsua* deritzon terminoa; bestetik, gaixotasunen bat dutenek osatzen duten multzoa; eta, azkenik, egoera jakin bategatik mendekotasunean bizi direnak. Leturiak azpimarratu zuenez, "gaixotasun bat izateak ez dakar, nahi eta nahi ez, mendekotasunean bizi izatea. Zorionez, gaixotasun kroniko asko erraz kontrolatzen dira gaur egun; diabetesa eta hipertentsioa, esate

baterako. Mendekotasun sasoi gero eta beranduago heltzen da, baina bizitzako azken urteak mendekotasun urteak izango dira kasu gehienetan".

Orain dela gutxi arteko azterketetan zahartzaroaren alderdi negatiboak nabarmentzen zirela esan zuen Leturiak: "Orain, aldiz, hainbeste jende ondo zahartzen dela ikusita, *zahartze arrakastatsua*-ren klabeak jakiten ahalegintzen gara ikertzaileok. Hobe da alderdi positiboak goraiatzea eta ahalik eta zahartze onena izateko urratsak ematea".

Hauexek izango liriteke zahartze arrakastatsua deritzonaren klabeak, Leturiaren ustez: "Osasun arazorik ez izatea, harreman onak edukitzea, modu batean edo bestean aktibo ibiltzea eta afektibitate aldetik ere laguntza izatea. Autonomo izatera iristen direnek lortzen dute *zahartze arrakastatsua*. Hori jakinda, oso garrantzitsua da gure jokaerak eta gure ohiturak bizimodu horretara bideratzea. Eta inoiz ez da berandu komeni ez zaizkigun jokaerak aldatzeko".



Informatika ikastaroak apiriletik aurrera

Urteko bigarren hiruhilekorako Informatika ikastaroak antolatzeko asmoa daukate San Joxepe. Ikastaro horiek apirilaren erdialdean hasiko dira eta jakin gura dute zenbat lagun egongo liritekeen gertu parte hartzeko. Windows hasiera ikastaroa, Internet eta Word hobekuntza ikastaroak, Excel programari buruzkoa eta argazkiak eskaneatzeko ikastaroak izango dira aukeran. Ikastaroak goizez (10:30etik 12:30era) edo arratsaldez (17:00etatik 19:00etara) izango dira. Izenematea eta argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian.

ZAHARREN ETXOKOTIK

Pilar Aranguren

SAN JOXEPEKO TABERNAKOA

Azpeitiarra jaiotzez, duela 26 urte etorri zen Bergarara bizi izatera. San Joxepeko tabernan egiten du lan. Erabat lanpetuta harrapatu genuen eguen arratsaldean.

Hain lanpetuta ibiltzen zarete beti?

Beti ez, baina kafea hartzeko orduan jende asko biltzen da; gizonetakoak, batez ere. Jokoan egitera etortzen dira gehienak, eta taberna beteta egoten da arratsaldeetan. Gaur, bi taldek merienda egin dute eta, ondorioz, lana pilatu egin zaigu. Eguraldi txarra dagoenean jende gehiago dabil. **Ateratako kafeak ez dituzu zenbatuko...**

Kontatu ere ez ditut egiten. Auskalo zenbat izango diren! **Laneko gauzarik onena eta txarrena?**



Hamazazpi urtean nabil San Joxepeko tabernan, eta oso gustura, gainera. Azken baten, jendearekin harreman estua sortzen da, eta aberasgarria da hori. Txarrena zera da, oso lan lotua dela: urtean bi egunean bakarrik ixten dugu taberna. Aste bukaeretan ere zabaltzen dugu.



**JAVIER
JUARROS
ETXEBARRIA**

PINTURA
ERAKUSKETA


NAHIKARI taberna.
Masterreka 20. Bergara.
Tel. 943 76 57 71

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



Ur-bide
ITURGIN TZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Bergarak bederatzi herrirekin egiten du muga. Ondorengo hamabi herrien artetik, zeintzuekin? Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Antzuola, Urretxu, Zumarraga, Azpeitia, Azkoitia, Arrasate, Oñati, Elorrio.

BERGARAKO ZUHAITZAK

Intsignis pinua

Pinus radiata

MAITANE ARIZABALETA

Normalean, 25-30 metro har ditzakeen tamaina ertaineko zuhaitza. 150 urteko bizi iraupena izan arren, produktoria dedikatzen diren mendiek 30-35 urteko txandak aplikatzen dituzte.

Intsignis pinuak ez ditu izozteak ondo jasaten eta haize gogorrek lurrera bota dezakete, sustrai sistema azalekoa du-eta.

Jatorria San Frantziskoko Badian du, eta Euskal Herrian XIX. mendean erabili zen lehen aldiz. Eta hainbeste landatu dutenez, baso-zuhaitz bilakatu da. Hazkunde bizkorrekoa izatean, basogintza birpopulatzeko erabili izan da, eta hemengo landaretza ordezkatu egin du. Erabilera masiboa usteltzea eta prozesionari intsektuaren eraso eragin dizkio.

Pinu horrek hainbat arazo ekarri ditu: bere orratzek konposatu fenolikoa izatean, lurreko kaltzioa, magnesioa eta potasioa gutxitu egiten ditu, eta bertan bizi diren eta ugalkortasuna mantentzen duten mikroorganismoen bizi egoera aldarazi egiten dute.

Egurra, paper pastarako erabilia izan arren, gaur egun, eraikuntzan eta altzarigintzan ere erabiltzen da.


“XIX.etik hona hainbeste landatu denez, baso-zuhaitz bilakatu da”



ARTIBOIA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|---|
| <p>1. BKEko saskibalo taldea 3. mailara igo zen duela 10 urte. Nor zen entrenatzailea?</p> <p>A/ Txiki Oiarzabal. B/ Alex Familiar. C/ David Urbina.</p> | <p>2. Zein da Hard-Ons musika talde australiarren azken diskoaren izenburua?</p> <p>A/ Surfin on my face. B/ The killing fields. C/ This terrible place.</p> | <p>3. Nork irabazi zuen joan zen urtean Gorko txirrindulari igoera?</p> <p>A/ Joakin Rodriguez. B/ Ricardo Serrano. C/ Alberto Contador.</p> |
|---|---|---|



Super BMk ematen duen 5.000 pezetako erosketatxartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANGELITA LARRAÑAGArendako izan da 5.000 pezetako erosketatxartela. Zorionak, Angelitari! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Bidekurutzeta / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Villacampo pikillo piperra

Eskuz egindakoa, 275 gr.ko potea

0,69 €

115 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tel. 943 71 24 25
BERGARA

BERGARAN
BULEGO BERRIA

KOROSLI
INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

**10 URTEKO
ESPERIENTZIA!**

ARTISAUTZAKO IZOZKIA

GOXO-TOKI

Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

**KONDE
PANADEROKUA**

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12



BERGARA
Andoni Bretaña
Martxoaren 16an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Igor Okina
Martxoaren 18an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Josu Mentxaka
Martxoaren 14an 10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Naiara De Dios
Martxoaren 16an 2 urte.
Urte askotarako!
Julen eta gurasoak.



BERGARA
Asier Franco
Martxoaren 16an 12 urte. Urte askotarako!
Lorea eta gurasoak.



ANTZUOLA
Nerea Telleria
Martxoaren 17an 27 urte. Urte askotarako!
Akiximila.



BERGARA
Jon Melchor Pardo
16an 7 urte. Zorionak!
Amonak, osaba-izebak,
lehengusuak eta gurasoak.



BERGARA
Kimberly Castro
Martxoaren 19an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nerea Larrañaga
Martxoaren 18an urtebetetzea. Zorionak!
Iker, Eider eta Alaitz.



BERGARA
Naroa Herrero
Martxoaren 16an urtebete. Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Josu Olabarria
Martxoaren 18an 12 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Naiara Azkarate
Martxoaren 20an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Osane Jimenez
Martxoaren 16an 27 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Mutila.



BERGARA
Maddi Bengoa
Martxoaren 20an urtebete.
Urte askotarako! Manex.



BERGARA
Olatz Olaineta
Martxoaren 17an 2 urte.
Urte askotarako!
Aita-amak eta Aitor.



BERGARA
Danel Santamaria
Martxoaren 20an 5 urte.
Urte askotarako!
Mari.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxungo

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

LOS CAZADORES

943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

Ganbara

TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. **BERGARA**
Tel.: 943 76 48 26

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Orain, European ere, Bezero desberdinentzat Aukera desberdinak.


Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruua, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezero bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 15a / 105. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Arau subsidiario berriak onartu ditu udalbatzak

AINTZANE IRIZAR

Martxoko osoko bilkuran, arau subsidiarioen dokumentu berria onartu zuen udalbatzak. Diputazioak onartzea besterik ez da geratzen, behin betiko dokumentua esku artean izateko. Aldaketa garrantzitsuak aurrez ikusi dituzte arau subsidiario berrietan.

Dokumentu berriak herrian hainbat aldaketa garrantzitsu egiteko bide ematen du; hona hemen berrikuntza garrantzitsuenetako batzuk.

Uzarragarako zubian aurrez ikusi da horietako bat. Bidegurutze garrantzitsua bilakatuko da hori; oraingo zubia baino behe-axeago, Bergara alderago, zubi berria egitea aurrez ikusi dute, horrela, Matz-Errekarako bide berria egiteko. Bestetik, Elayrako errepidea ere egingo dute, Uzarragarako zubian hasi eta Beheko Auzoaren ostetik igaroko dena. Horretarako, jakina, oraingo zubia ere berritu egin beharko litzateke, hau da, zubi zabalagoa egin beharko litzateke.

Arau subsidiarioek dakarkiguten beste berrikuntza nabar-



AINTZANE IRIZAR

Oraingo zubia berritu eta beheaxeago beste bat egitea aurrez ikusi dute.

men bat: Elektrikako etxea deritzona kendu eta etxe berria egingo dute. Gainera, Elektrikako etxearen inguruan dagoen berdegunea zabalduko lukete, bide batez, Beheko Auzoa ere itxuraldatuz. Bestalde, Beheko Auzoa Etxezuri aldameneko zubi berri

horrekin lotuko litzateke, eta han dagoen zirkulazio arazoa arindu egingo luke.

Sagasti ingurua ere dezente aldatuko da arau berrien arabera. Seytra eta Balzers lantegiak kendu eta hainbat etxebizitza multzo egiteko asmoa dute.

ERAKUSKETA

Argizaiol erakusketa oraingo asteburuan

Felix Pinillosek egindako 50 bat argizaiol ikusteko aukera izango dugu bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Olaran etxeko aretoan. 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era egongo da zabalik erakusketa.

Donostiako San Telmo museoan dauden argizaiolen kopiak izango dira Olarango 50 piezok.

Argizaiol bakoitza testu batek lagunduko du. Testu horretan, argizaiolaren gaineko deskribapena egingo zaio ikusleari. Argizaiolak Felix Pinillosek egindakoak diren arren, Luis Angel Agirrek egin ditu deskribapen horiek. 50 argizaiolak formaren, dekorazioaren eta bilakaeraren arabera daude sailkatuta.

ERRETIRATUEN ELKARTEA

Zapatuan egin zuten erretiratuek batzarra

Joan den zapatuan egin zuten Erretiratuen Elkarteak urteko batzarra. 65 bazkide elkartu ziren.

Aurreko ikasturtearen balorazio positiboa egin zuten orokorrean, eta datorren urtean egitarau berarekin jarraitzeko asmoa erakutsi zuten. Bergarako San Joxepe elkartearekin duten lankidetzarekin jarraitze-

ko asmoa ere agertu zuten, Kultur Hamabostaldiari dagokionez, batez ere.

Bestalde, 80 urtetik aurrerakoek kuotarik ez ordaintzearen inguruan ere aritu ziren batzarrean, baina ez zuten erabakirik hartu. Batzar berezia egingo dute laister, horren gainean behin betiko erabakia hartzeko.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi • Gizarte laguntzailea

Gure hiria edo zikinkeria

Lehen hain modan egon zan esaldi hau aspaldixan ez dogu inguruan ikusi edo entzun, baina horrek ez dau nahi esaterik zihero ahaztia komeni danik. Hala eta guztiz be, nere ustetan behintzet, pixka bat alde batera laga dogula pentsatzen jat. Zergaittik esaten doten hau? Segiduan esplikauko dotsuet. Azkenaldi honetan jo jatzue begirada bat herriko errekiari? Egixa esan, urik ez dakitt dagon, baina errekiaria baino gehixago Amazonas emuten dau, bere abere eta guzti. Uste baino lehenago hipopotamuan neurriko arratoiak ezkutauko die-ta

bertan; zoologikua ipintzeko moduan gare herrixan. Aberien gainian berbetan garela aprobetxauaz, beste gauza bat: laister etxetik be ezingo gara irten, atia zabaldu orduko txakurren baten kaka pillia dogulako oinetako azpizan. Hau da jiria, hau! Nik uste dot igerilekuen proiektua alde batera laga eta txakurren komun publikuak egitten hasi beharko dirala. Igerilekuak? Gure



“Laister herri politt eta eder bat edukiko dogu”

intensiñua gimnasia egittia bada, ez daukagu igerileku biharrik, orain dala hilabete (gutxi gorabehera) merke asko patinatzeko aukeria eduki giñuan antzuolarrak kale guztian zihar zabaldu zan olixuari esker. Txuri-Urdin gratis eta herritik irten be egitteke!

Onena goizetan izaten da, kalegarbitzailliak haizia botatzeko aparatua horrekin kaleko zikin danak atari

barrutara trasladatzen dittuanian.

Bueno, bale, dana txarra ezingo dot esan, ezta?

Udaletxian aldetik herrixia txukuntzeko ahalegiña nabarmena ez danik ezin esan: bai bertako langillien aldetik, kalien garbittasunagaittik, eta baita Sagasti eta Aiherra arteko kale berrixagaittik, eta egitten diharduen Kultur Etxe berrixagaittik be bai. Argi dagona da, laister, hemendik denboraldi batera Gugenheim-ekin berakin konparau be ezingo dan herri politt eta eder bat edukiko dogula antzuolarrak.

LABUR

Mongolia ikusgai eta hizpide eguazten iluntzean

Urteko batzar orokorra egingo du Arrola mendi elkarteak datorren eguaztenean, martxoaren 20an. 19:00etan izango da hori, Olaran etxeko aretoan, hain zuzen ere.

Batzar orokorra bukatu eta gero, 20:00ak aldera, Mongoliaren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko du Jose Ramon Agirre Marron-ek. Diapositiba emanaldia eta berbaldia egingo ditu Agirrek Olaran etxean bertan, *Mongoliako estepa eta arnasa* izenburupean.

IRAKURLIARENTXOKUA

ANTZUOLAKO BATASUNARI

2002ko martxoaren 8ko KONTUOLAn kaleratutako Antzuolako Batasunaren gutunari buruz hiru ohartxo baino ez:

1. Martxoaren leko KONTUOLAn iritzi artikulua idatzi zuena Joseba Lezeta da. El Diario Vasco Antzuolako berri-mailea da, baina baita Kontxi Alberdi eta Juanito Lezetaren semea. Olamendiko Emili zenaren eta Juane zenaren biloba, Marina Peñak eta Bixente Alberdik hazitako mutiko potoloa, Justina, Bittori, Jose Mari eta beste zazpi anai-arrebaren iloba, Peña Ayastuyko kidea, txirrindulari karreretan antolatzaile ibiltzen den txorimaloa, AKEko eta Olaldeko bazkidea, Juanjo Polleroren aurrelari negargarria Herriko Pilota Txapelketan... Antzuolako Batasun Goizperko langileak, Elaykoak, Matz-Errekakoak, Camachonekoak, tabernariak eta hainbat ofiziota-koak daude. Lanetik kanpo euren bizimodua dute guztiek. Baina, itxura denez, nik neure lantokiko langilea baino zerbait gehiago naizela aldarrikatu behar dut. Aintzane Irizarrek niri eskatu zidan KONTUOLAn idazteko, ez DVko zuzendariari.

2. Ez dut uste Garzon eta Aznarren erantzuna eskatu nuenik.

3. "Antzuolako pintadak kentzearen kostuak gure jubilatuen soldatak murrizten dituela insinuatzen" nuela diozue. Nik zera idatzi nuen: "Eskerrak Euskal Herriko ekonomia indartsu dagoen. Noizbait lana gutxitu eta erakundeen diru bilketa jaitzen bada, errukinak gara. Batzuk pentsiorik gabe geratuko dira". Agian datu honekin poztuko zarete. Antzuolako pertsona bakarrak zoriondu nau artikulua gatik. Jubilatua da bera.

JOSEBA LEZETA

ANTZUOLAKO BATASUNARI

Martxoan 8ko KONTUOLAn, Antzuolako Batasunaren izenian azaldutako kartai buruz, hauxe (eta espazio faltaz idazteik ez daukaten beste batzuk) adierazteko premiña sentidu dot.

Behin eta berriz irakurri ditud Joseba eta Antzuolako Batasunaren iritzi artikulua eta, egia esanda, Joseban artikuluan inon ez dot topau Antzuolako Batasunak leporatzen jatzuen iritzirik. Joseban artikuluan inon ez dot irakurri gaur egun euskal gaztedixian zati bat ordezkatzeko daben erakundia ilegalizatzea eta klandestinitatera bultzatzea berri aipagarriak ez dienik, ez eta herritar honek, Garzón eta Aznarren erantzuna desiratzeko bide errepresiboa aukeratzeko dabenik.

Nere ustez, KONTUOLAn Josebak argitaratu daben iritzi-artikuluan, aittatutako pintaden inguruan bere iritzia emun besteik ez dau egin. Eta hori herritar batek eitten dau, zein enpresantzako lan egitten daben kontuan eduki barik, edo gure astekariko atal honetan argitaratzen dien beste iritzi-artikulu guztitan iritzi emalliak lan egitten daben enpresaren pentsakera eta jarrerak diela ulertu bihar dou? Edo, gutako bakoitzak, lan egitten doun enpresaren ideia eta pentsakerekin beti bat egiten doula eta ados gaela interpretatu bihar dou?

Eta Antzuolako Batasunak Joseban iritzi-artikulutik arestixan aittatu dituden konklusioak etara badittu, nere ustez, edo ez dozue ulertu idatzia eta berriz, nik egin doten moduan, astiro astiro irakurtzia gomendatzen dotsuet edo benetan, ez dakit zein interesekin, baiña demagogia arriskutsua egin nahi izan dozue gai honekin.

Pintaden gaixai buruz, espero neban bai Antzuolako Batasunaren iritzi argi eta garbixa jasotzia, baiña behin ere ez neban pentsaiko, zuen iritzia gizurrian eta demagogian oinarrituko ziñuenik. Benetan, oinguan, mailla bajua erakutsi doskuzue.

XABIER LEGORBURU

KIROLA

Olalde eta Idiak ez kadeteak finalerdietarako sailkatu dira Debarroko Pilota Txapelketan

Martitzenean, hilaren 12an, Antzuolan jokaturako partiduan erabakita geratu zen finalerdietarako sailkapena. 13-22 galdu arren, 12 tantorekin nahikoa zuten sailkatzeko. Astelehenean, hilaren 18an, 19:30ean, Antzuolan jokaturako dute finalerdietako lehen partidua, Elgoibarren aurka. Zapatuan, berriz, Udaberri Sariko eta Gipuzkoako Liga-ko partiduak jokaturako dira Antzuolan, 16:00etatik aurrera.

Aritz Berraondok lehen aldiz jokaturako du eskuz banakako lehen mailako txapelketa

Lehen mailako eskuz banakako txapelketa nagusian parte hartuko duen lehen aldia izango du Aritzek. Esainen eta Ariznabarretaren arteko partiduan irabazlearen aurka jokatu beharko du Aritzek, martxoaren 24an. Eskuak ez ei ditu oso ondo, baina ilusioa eta gogoia ez zaizkiola falta adierazi digu.

BOTEPRONTOAN/ Arkaitz Zabalo · Arrola mendi elkartearen presidentea

"Ibarreko mendi taldiekin batera lan egittia izango da aurtengo erronkia"

Eguaztenian, urteko batzar orokorra egingo dau Arrolak. Bertan, batzarreko kide batzuk laga egingo dabe kargua, eta bost batzarkide berri sartuko die. Gu Arkaitz Zabalo Arrolako presidentearekin egon gara.

Badago berritasunik batzarri begira?

Ez, gutxi gorabehera urteroko antzerako batzarra izango da. Bost kidek lagako dabe batzarra eta beste bost sartuko dira. Eta, betiko moduan, urtiaren baloraziñua egingo dogu. **Zuek dagoeneko egingo ziñuen baloraziñua, ezta?** Irteeren gaiñian egitten dogun baloraziñua nahiko positibua da; batez be, ikusitta inguruko herrixetan nahikua gaizki ibiltzen diela, Antzuolan jente dezentek parte hartzen dau antolatzen ditudun irteeretan. Hamazazpi irteera egin ditudun urtian, eta batez beste 26 lagunek hartu dabe parte.

Zein asmo daukazue hurrengo urtiari begira?

Kezka nagusixa da eskalatzeko errokodromua jartzeko toki egokirik ez daukagula. Baiña, bueno, hementxe jarri biharko

dogu, Kalebarrenen daukagun lokalian. Gizarte etxeko lanek irauten daben bittarterako, lokal hori emon doskue, eta oin ezin izango gara hasi beste bat eskatzen.

Bestetik, inguruko herrixetako mendi taldiekin elkarlanian hasi gara irteera batzuk alkarrekin antolatzeko, eta hori izango dogu beste erronka bat

oraingo urterako. Gaiñerakuan, betiko irteerekin jarraitzeko asmua daukagu.

Osasuntsu dago mendizale-tasuna herrixan?

Antzuolan eta darian antzera egongo dala uste dot; jentia mendira juten da, baiña gehixenak euren kabuz juten die. Ez die egoten guk antolatutako irteeren zain. Hori bai, Pirineoetara eta urrutiti samarrerako irteeretak bai animatzen da jente gehixago gurekin etortzera.

Umiekin esfortzu berezixa egitten dozue, ezta?

Bai. Egutegixa begiratu beste-rik ez dago. Irteeren erdixak inguru umiendako antolatzen ditudugu. Alde batetik, lehen esan doten moduan, nagusixak gehixago juten dielako euren kabuz. Beste alde batetik, eskoliakin harremana daukagu eta eskola-kirola bultzatzeko dauken programiaren barruan, gure irteeretan laguntzen doskuelako. Gaiñera, Arrolan hainbat guraso dare, eta eurak arduratzen die gaztetxuenendako irteerak antolatziaz. Umien irteerekin oso pozik gare; izan be, dezenteko arrakastia edukitzen dabe.





MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34



Bidea eginez

Tallera: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71-79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko martxoaren 15a / 91. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Kirola Euskaraz-en barruan fitxa didaktikoak aurkeztuko dituzte

OXEL EROSTARBE

Hilaren 20an, 12:00etan, Debarroko Kirola Euskaraz programaren barruan, aerobiceko eta prestaketa fisikoko fitxa didaktikoen aurkezpena izango da Elgetako udaletxean. Aurkezpenean Diputazio eta Mankomunitateko arduradunak izango dira.

Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek ateratako beken emaitzak aurkeztuko dira. Bi urteko lana izan da. Datorren eguaztenean, aerobiceko eta prestaketa fisikoko fitxa didaktikoak aurkeztuko dituzte Elgetan. Aurkezpenean izango dira Lore Leanizbarrutia (Diputazioko Euskara zuzendaria), Patxi Basauri (Mankomunitateko Kirol batzordeko arduraduna) eta beka lortu zutenak.

LEHIAKORRAK EZ DIREN KIROLAK

Eskola Kirola Kontseiluak lehiakorrak ez diren kirolak egiteko aukerak eman nahi ditu. Parte hartu nahi duten umeek martxoaren 19a baino lehen eman beharko dute izena Kirol Zerbitzuetan edo Herri Eskolan. Jardueren prezioa 11 euro da.



Datorren astean bertan hasiko da lehiakorrak ez diren kirolen programa.

DBHko 13 eta 16 urte bitartekoek saskibaloia eta boleibola landuko dituzte, talde kirola bultzatzeko asmoarekin. Lehen Hezkuntzako umeendako, aldiz, kirol

alternatiboak antolatu dituzte: erraketa kirolak, malabar pilotak eta frisbee-a, hain zuzen.

Aipatutako kirol horien oinarriak ikasi eta ondo pasatzea

helburu daukaten bi jarduerak eguaztenean izango dira, gazteenendako 17:30etik 18:30era eta nagusienendako, berriz, 18:30etik 19:30era.

HERRITARREN HITZA / Iban Arantzabal • Goienako Telematika zuzendaria

Bihotzarekin beti prest

I nori gustatzen ez zaizkion kanpai horiek entzun nituen asko ez dela. Kanpai horien soinua, berriz, berezia iruditu zitzaidan. Doinua balute moduan egiten zuten don, don, don... zazpi bider jo arte ez ziren geratu. Pentsatu nuen musika egiten jarraituko zutela, baina kale, zazpigarrenean isildu ziren. Martxoan, 1964ko martxo artan itzali zen Jazinto Rivas "Elgeta" ere...

"Elgeta" trikitilariaren arrastotik, egon da eskuineko aldearekin melodia jotzen duenik eta ezkerrekoarekin erritmoa markatu duenik, Elgetan bai behintzat.

Pobrearen pianoa aberats jotzen zuen, buruan notak nahasian izanda beharrean bihotzak lagunduta mugitzen zituen atzamarrak. Orain birtuosistak datoz bihotzarekin komunikatzen dutenei lekua hartzera, baina antzinako erromeriatan moduan bals-ak, foxa, fandangoak, arinarinak edo pasodobleak joko dituen bat gutxiago dugu gure artean.



"Pobrearen pianoa aberats jotzen zuen, notak bihotzetik aterata"

Soinu txikia euskaldunongana Italiarrek ekarri zutela 150 urte pasa dira dagoeneko, eta herriko trikitilari honen soinua txikian bazegoen Italiarren arrastorik: Guerrini irakurri zitekeen. Gaur egun oso estimatuak diren Larrinaga-Gerrini erako soinua jotzen zuten-eta.

Maketoen soinua, pobrearen piano edo infernuko hauspo moduan ezagun egin zenak, debekuak, isunak eta

kontrako sermoiak jasan zituen, baina gure herrian "Elgeta" trikitilariak egin zuten bidea uste horiei buelta emateko. Harrezkero entzun izan dugu dantzaldi edo erromeriarik.

Plazak zozketatzen ibili beharrik ez dute izango lehen egiten zuten moduan. Seguru nago infernuko hauspoari eragingo diola Fakundok, azkeneko itzali zaigun "Elgeta" partikularrak. Ondoan izango du Luzio ere. Nonbaiten, non ez dugu jakingo zehatz, baina izango da afariren bat guk ezagutzen ez dugun Mendi Mendia baten.

LABUR

Matxurak kalean aparkatutako autoetan

Herritar ugari haserre dabil-tza aspaldian. Azkeneko aste-etan aparkatutako zenbait auto matxurekin agertu dira. Aste honetan bertan, auto berriko atea arraiatuta topatu dituen elgetar batek deitu digu. Ez zaio berari bakarrik gertatu, Salbador kale ostean beste zenbait auto ere arrastokin agertu dira-eta. Autoetan gaiztakeria hauek egiten dabilzanak argi ibili beharko dira, zenbait garajeren aurrean bideokamarak jartzekoak dira eta.

Autoak ondo aparkatzeko eskaria egin dute

Eguerdietan plaza inguruan gaizki aparkatuta uzten dute autoa gidari ugari. Horrek zirkulazio arazo ugari sortu izan ditu sarritan.

Gaizki aparkatutako autoen arazoarekin bukatzeko, kanpaina jarri du abian Udalak. Oraingoz, gaizki aparkatuta dauden autoei eskuorri bat jarriko diete. Bertan, autoa gaizki aparkatuta dagoela esaten da eta, mesedez, dagoen tokitik kentzeko. Gidariekin kasurik egiten ez badute, isunak jartzen hasiko da Udala.

'Zuberotarrekin bat, auzolanean' aurkeztuko dute

Udalbiltzak abian jarri duen 'Zuberotarrekin bat, auzolanean' kanpaina aurkeztuko dute datorren egunean, martxoaren 21ean, iluntzeko zortzietan, udaletxean.

Helburua da Zuberoak bizi duen ekonomia eta biztanleria gainbeherari buelta ematea da. Hori lortzeko bidea lanpostuak sortu eta euskal herrialdeen arteko harremanak sendotzea da. Euskal Herri osoan milioi bat euroko diru kopurua lortzeko kanpaina hasi dute horretarako.

IRAKURLIAREN TXOKUA

ASENTZIO EGUNA

GOIBEKOKALEn guri egin ziguten elkarrizketan Asentzio Egunari buruzko galdera bat agertu zen. Galdera horretan ez zen guk erantzun genuena behar bezala ulertzen.

Ez dugu Asentzio Eguna antolatzeke ardura utzi nahi, elkarlana nahi dugu, denon artean antolatuta jai handiagoa irten daitekeelako. Asentzio Egunaren antolakuntzan parte hartu nahi dutenekin martxoaren 21ean, egunean, gaueko 21:00etan, bilera egingo dugu Gaztetxean.

Denon artean, elkarlanean jai handi bat aurrera eramaten lagunduko duzuelakoan agurtzen gara.

ELGETAKO GAZTETXIA

AUZOLAN NAZIONALA

Abertzale sentitzen gare-nontzako badaude sinbolo garrantzitsu batzuk (Euskal Herria, Zazpiak Bat, Ikurrina, etab.). Baina gaur egun ez da nahikoa horietan sinestea. Gaur, abertzaleok sinbolo horiek edukiz bete behar ditugu.

Horretarako aukera ederra eskaintzen digu Udabiltzak, Zuberoa suspertzeko egitasmoa, benetako auzolan nazionala. Zuberoaren egoera larria dugu. Krisi ekonomiko sakonak eraginda, biztanleria 25.000tik 13.000ra jaitsi da, eta euskararen egoera ere kezagarria da.

Egoera horri buelta eman eta Zuberoako beste eragile eta instituzioei laguntzeko asmoz, milioi bat euro biltzeko kanpaina hasi du Udabiltzak. Diru horrekin egitasmo zehatz batzuk bultzatuko dira (garagardo fabrika, nekazaritza produktuak ekoizteko planak, etab.); horrela, 600 lanpostu lortzea eta 2.000 pertsona lurraldean finkatzea du helburu. Bada garaia abertzale sentitzen garenek, alderdikeriak alde batera utzita, gure herriari begira lanean hasteko, beti Madrilerara begira egon gabe.

Herrialdeen arteko solidaritateak eraikiko baitugu Euskal Herri batu eta askea, Herri Solidarioen mundu aske baten bidean.

Elgetak ere bere laguntza eman behar du auzolan horretan. Datorren egunean, hilaren 21ean, bilera egingo dugu egitasmoa martxan jartzeko. Guztiontzako daude ateak zabalik.

SEBASTIAN ARANZABAL
(Udabiltzako partaidea)

GAZTETXEAK SEI URTE

Gaur *Trainspotting* antzezlanana eta bihar Haurren Eguna antolatu ditu gaztetxeak

O.E.

Gaztetxearen seigarren urteurreneko ekitaldiek aurrera jarraitzen dute. Aurreko barikuan, Ken 7 taldearen kontzertua bertan behera geratu zen, abeslaria gaixorik zegoen-eta. Oraingo asteburuan, *Trainspotting* antzezlanana eta Haurren Eguna izango dira.

Gaur, 21:30ean, *Trainspotting* antzezlanana izango da Elgetako gaztetxean. Juanlu Escudero *Trainspotting* filma bakarrizketara moldatu du. Hura dugu lan horretan parte hartzen duen aktore bakarra.

Bihar, bestalde, egun osoan barrena umeak egingo dira gaztetxearen jabe. Goizeko hamarretan hasita, ekintza ugari daude antolatuta euren dako. Eguraldiak laguntzen badu, mendi irteera egingo dute lehendabizi. Menditik bueltan, bazkari goxoa izango dute gertu, Guraso Elkar-teak gertatuta, hain justu ere.

Arratsalderako joko berezi bat gertatu dute gaztetxeok kideek. Izan ere, munduen artean dauden desberdintasunak landuko dituzte gaztetxean.

Datorren martitzenean, hilaren 19an, okupazioaren gaineko bideo emanaldia egingo dute.

DATORREN ASTEAN, HERRI BAZKARIA

Gaztetxearen seigarren urteurreneko ekitaldi nagusiak datorren astean izango dira.

Trikitilariek alaitutako txikiteoarekin hasiko dute eguna herriko gazteek. 14:30ean, herri bazkaria izango da gaztetxean. Bazkarirako izena eman nahi dutenek, Haizea tabernan edo gaztetxeok erantzungailuan (943 78 90 43) egin dezakete. Urteurrena ospatzeko bazkari goxoa gertatuko dute aurtengoan ere: entsaladilla errusiarra eta entsalada nahasia, albondigak saltsan, postrea eta kafea. Bazkaria bederatziko euro kostatuko da.

Bazkalostean jokoak izango dira, arratsaldea animatzeko.



ARTXIBOA

Juanlu Escudero *'Trainspotting'* antzezlanana aurkeztuko du gaur gauean.

GIZARTE LAGUNTZAILE BERRIA

Uztailera arte gizarte laguntzaile lanetan

O.E.

Hamabost egun daramatza Arantxa Goikoetxeak Elgetako eta Antzuolako gizarte laguntzaile lanetan. Orain arte Karmele Kortak bete du lan hori. Amatasuna dela-eta, ordea, Karmelek lau hilabeteetan lagako duen hutsunea beteko du Arantxa Goikoetxeak.

Datozen lau hilabeteetan, Arantxa Goikoetxea hernaniarra arduratuko da Elgeta eta Antzuolako herritarrei behar duten gizarte laguntza emateaz. Izan ere, Karmele Kortak amatasuna dela-eta

baja hartu zuen ezkerro, Arantxa Goikoetxea dugu gizarte laguntzailea.

ASTELEHEN ETA EGUNETAN ELGETAN

Arantxa Goikoetxea astelehenean eta egunetan izango dugu udaletxean lanean, eta ordutegi hau izango du bi egun horietan: 08:00etatik 15:00etara.

Balorazio orokorra egiteko denbora laburra daramala esan digun arren, zenbait familia eta bizilagun dagoeneko joan dira hura ezagutzera. Adineko jendea joan da, batez ere, etxeko zerbitzuaren gainean informazioa eskatzera.



AINZANE IRIZAR

Uztail amaiera arte Arantxa Goikoetxeak jardungo du gizarte laguntzaile lanetan.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

Kiromasajea •
Reflexologia •
Hidromasajea •
Kirol masajea •



• Solariuma
• Drenaje linfatikoa
• Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATU ZAHARRA

Elgetako jaixetan artillia landu zebenekua

Hemen urteko jaixak bereziak izan ziran. Izan be, herriko nagusiek artillia lantzeko emon bihar diran pausuak erakusten izan ziran plazan.

Erretratua oin dala 25 urte ingurukua da, eta plazako lurrian konponketak egitteka darella konturatu geinke.

Nahikua lan izan dogu artillia landu zebenak zeintzuk izan ziran asmatzeko. Azkenian bati eta bestiarri galdetuta lortu dogu. Erretratuan artillia lantzen diharduenak honek lagunok dira, ezkerretik eskumara: Larrabiltxoko Pablo, Aurtengo Anizeto, Sesiako Ilario, Beketxeko Alejandra, Sesiako Ana eta Iturriko Satur. Eskuman, banketa baju batian jarritta dagon emakumiaren izena ezin izan dogu jakin; dakigun gauza bakarra da abadiaren etxian bizi zan emakumia dala.

Erretratuan, edadeko jentiak kolkuan larrosia daukala ikusi geinke. Kontua da oin Ferixa Nagusixetako barikuan izaten dan Jubilauen Eguna orduan hasi zirala ospatzen herrixan.



Plazako arkupetan jente asko ezagutu dogu. Zeuen etxeak be izango dira hortxe, herriko plazan edade guztixetako jentia batu zan-eta.

Udaletxeko arkupian, jentia atzekaldian, izara batzuk be ikusi geinkez; esan doskuenez, antzerkiren bat be izan zan egunian.

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Eibarrera bideko errebuelta

San Roke bukaeran etxiak segitten hasi ziranetik hona, ziharo aldatu da Kantoiko ingurua. Eibarrera bidia eskumaratu biharra euki zeben. Oin dala hoge urteko erretratuan ikusi geinken etxiok botatziakin, Eibarrera bideko errebuelta kentzia lortu zeben. Gaur egunian, Zeletaneko tailerrian eta ospitale zaharrian amaitzen da herrixa Eibarrera bidian.



≈ 1980 Erretratuan Eibarrerako bideko errebeltian onduan zeuzan Zeletako etxia eta Simon Ibaibarriagaren etxia ikusi geinkez.



2002 Eibarrerako bideko errebuelta kenduta dago. Gaur egunian, Zeletaneko tailerra eta ospitale zaharra bakarrik geratzen dira inguruan.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Udaberria!

Uda!



SUBIJAi
Ume eta gazte moda

OILILY • KENZO • PAMPOLINA • QUIKSILVER • LIBERTO • PETER RABBIT • TIMBERLAND • ELLE

943 76 42 41. Irizar 1




Sukaldeen berritzea.

Bainugelen berritzea.

Zeramikan azken berrikuntzak.

Etxea berritzea ondo atera dadin, Jakinan gremio guztiak eskaini eta koordinatzen dizkizuegu.

Jakina, zurekin pentsatzen.



JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK
Bergarako FAGOR banatzaile bakarra

San Lorenzo Industri Pol., Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR

Produktu-zerifikatua

6
URTEKO
GARANTIA